

N A F A R R A 

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

HELBURUAK ETA JARDUERAK (2015-2020)





Aurkibidea



N A F A R R ♥ A

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

HELBURUAK ETA
JARDUERAK
(2015-2020)



Servicio Navarro de Salud
Osasunbidea

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

HELBURUAK ETA
JARDUERAK
(2015-2020)

“Osasunbidea: osasunaren alde bidea eginez” estrategia.
Helburuak eta Jarduerak (2015-2020)

Argitaratzailea: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

Diseinua eta Maketazioa: Heda Comunicación

Lege gordailua: NA 2427-2017

Webgunea:

www.estrategiaosasunbidea.navarra.es

TALDE IDAZLEA

Oscar Moracho Del Río.

Osasunbidearen zuzendari
kudeatzailea

Alfredo Martinez Larrea.

Eriari Osasun Laguntza emateko
zuzendaria

Lázaro Elizalde Soto.

Osasun Departamentuko (OD) Osasun
arloko Herritartasunaren,
Aseguramenduaren eta Bermeen
Zerbitzuaren zuzendaria

Javier Apezteguía Urroz.

Osasun Laguntza Integraturako
zuzendariordea

Isabel Rodrigo Rincón.

Nafarroako Ospitaleguneko
Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko
Zerbitzuko burua

M^a Mar Malón Musgo.

Nafarroako Ekialdeko Oinarritzko
Osasun Laguntzaren eta Laguntzaren
Jarraitutasunerako zuzendariordea

LANTALDEA

Fernando Domínguez

Cunchillos. Osasuneko
kontseilaria (OD)

Luis Gabilondo Pujol.

Osasuneko zuzendari
nagusia (OD)

M^a José Pérez Jarauta.

Nafarroako Osasun Publikoaren
eta Lan Osasunaren Institutuko
zuzendari kudeatzailea

Marisa Garcia Mayayo.

Kudeaketa Ekonomikoaren eta
Zerbitzu Orokorren zuzendaria

Esteban Ruiz Álvarez.

Profesionalen zuzendaria

Manolo Carpintero

Navarro. Eriari Osasun
Laguntza emateko zuzendari ohia

Javier Diez Espino.

Oinarritzko Osasun Laguntzako
kudeatzailea

José Ramón Mora

Martínez. Tuterako Osasun
Barrutiko kudeatzailea

Marisa Hermoso de

Mendoza Merino. Lizarrako
Osasun Barrutiko kudeatzailea

Antonio Merino Díaz de

Cerio. Nafarroako
Ospitaleguneko kudeatzailea

Antonio Lopez Andrés.

Farmaziako zuzendariordea

Esther Eraso Goñi.

Langileria eta Lan Harremanetako
zuzendariordea

Borja Azaola Estévez.

Nafarroako Iparraldeko Oinarritzko
Osasun Laguntzaren eta
Laguntzaren Jarraitutasunerako
zuzendariordea

Javier Abad Vicente.

Plangintzarako, Ebaluaziorako eta
Ezagutza Kudeatzeko Zerbitzuko
zuzendaria (OS)

Jesús Berjón Reyero.

Nafarroako Ospitaleguneko
zuzendari asistentziala

Maite Soria Sarnago.

Nafarroako Ospitaleguneko
Osasun Zainketen zuzendaria

Emilia Esandi Álvarez.

Lizarrako Osasun Barrutiko
Zainketa Asistentzialen
Zerbitzuko zuzendaria

Olga Sanz Asín.

Tuterako Osasun Barrutiko zuzendari
asistentziala

Ion Ariceta Iraola.

Nafarroako Ospitaleguneko
Prozesu Kirurgikoen
zuzendariorde asistentziala

Manuel Montesino

Semper. Nafarroako

Ospitaleguneko Prozesu

Anbulatorioen eta

Diagnostikoaren zuzendariorde

asistentziala

Tomás Belzunegui Otano.

Nafarroako Ospitaleguneko

Ospitalizazioko eta Urgentziako

Prozesuen zuzendariorde

asistentziala

Javier Turumbay Ranz.

Osasuneko Informazio Sistemien

Zerbitzuko burua

Nancy Nelly Gonzalo

Herrera. Lizarrako Oinarritzko

Osasun Laguntzaren eta

Laguntzaren Jarraitutasunerako

Zerbitzuko burua

Ana Carmen Jaso López.

Tuterako Oinarritzko Osasun

Laguntzaren eta Laguntzaren

Jarraitutasunerako Zerbitzuko

burua

Bideratzaileak: Rafael

Bengoa Rentería eta Patricia

Arratibel Ugarte SI-Health

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. "OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ" ESTRATEGIA EGITEKO ERABILTAKO METODOLOGIA	9
Prozesu metodologikoaren 1. fasea: PARTE-HARTZEA	9
Prozesu metodologikoaren 2. fasea: GOGOETA ETA NAZIOARTEKO BERRIKUSPENA	9
2. "OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ" ESTRATEGIAN LEHENESTEN	
DIREN 12 ESKU-HARTZEEN XEHETASUNAK	11
a.1 PERTSONA AKTIBOAK OSASUN-SISTEMA PROAKTIBO BATEAN	14
a.2 ESKUAK GARBITZEA BAINO, EZ ZIKINTZEA HOBE	15
a.3 PERTSONA AHULENTZAKO LAGUNTZA LEHENESTE	17
b.1 OSASUN LAGUNTZA INTEGRATZEA PAZIENTE BAKOITZARI BALIO ETA	
SEGURTASUN HANDIAGOA ESKAINTZEKO	19
b.2 PAZIENTEAK LEKU ETA MEMENTO EGOKIAN ARTATZEA	22
b.3 ESPAZIO SOZIOSANITARIOA BATERA LANTZEA PAZIENTEEN ETA	
HAIEN FAMILIEN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO	25
c.1 KALITATEAREN ARLOKO BERRIKUNTZA	26
c.2 PROFESIONALEN, PAZIENTEEN ETA HERRITARREN BILAKAERA DIGITALEAN AURRERA EGITEA	28
c.3 BALIABIDEAK MODU EZIN HOBEAN ERABILTZEA OSASUN UNIBERTSALA BERMATZEKO	29
d.1 LAGUNTZAREN KALITATEA HOBETZEKO PRESTAKUNTZA DUTEN PROFESIONALAK	31
d.2 PAZIENTEEKIKO INPLIKAZIOA DUTEN TALDE PROFESIONALAK	33
d.3 PROFESIONALEK KUDEAKETAN PARTE HARTZEA OSASUN LAGUNTZA HOBETZEKO	34
3. "ALDE BIDEA EGINEZ" ESTRATEGIAREN ILDO OSAGARRIEN DESKRIBAPENA ETA LEHENESPENA"	36
1. ARDATZA. KOMUNITATEKO OSASUNA SUSTATZEA ETA	
OSASUN-ARLOKO DESPAREKOTASUNAK MURRITZEA	37
2. ARDATZA. SISTEMA JASANGARRI ETA KALITATEZKOA BERMATZEA,	
BIZTANLEENBEHARREI ERANTZUNGO DIENA	38
3. ARDATZA. ERANTZUKIZUNA ETA ERAGIN SOZIALA	42
1. ERANSKINA- PLANAK ETA PROIEKTUAK	45
2. ERANSKINA- ADIERAZLEAK/HELBURUAK	48
3. ERANSKINA: PROGRAMA-AKORDIOA	49



Aurkibidea

AURKEZPENA

Gizarte batek izan dezakeen aberastasunik handiena osasuna da. Osasuna, gainera, aberastasun iturria eta lehen mailako inbertsio soziala da, gizarteko beste funtzioak bultzatzeko gaitasun handia duena. Nafarroak osasun ona izatea ez da bakarrik Osasun Departamentuaren edo Osasunbidearen ardura; izan ere, gure gizartea eratzen duten pertsona eta gizarte-eragile guztiena ere bada.

Osasun sistema eredugarria dugu, urte askotako ahaleginekin, inbertsioekin eta trebetasun profesionalarekin eratu dena. Baina une erabakigarrian gaude, erronka handi baten aitzinean, datozen urteetan jasagarria izanen dela eta hobetuko dela bermatu behar baita. Zahartze eta kronikotasun gero eta handiagoak, itxaropen gero eta indartsuagoak, gizartearen gehiegizko medikalizatzea edo aurrerapen teknologikoen sarrera etengabea (aurrerapen horiek aukera berriak sortzen dituztelarik, nahiz eta eskaria asko handitzen duten eta horri eustea zaila izan). Egoera honen aurrean, hainbat traba daude, gure erantzunen ahalmena eta jasagarritasuna arriskutan jartzen dituztenak: gure ingurune ekonomiko beti mugatua, zainketen eta zerbitzuen zatiketa, beste estamentu batzuekiko koordinaziorik eza, araudiaren zurruntasuna eta gure sistemaren inertzia, erreaktibotasunera eta zerbitzuak ematera bideratzen dena prebentziorantz eta arazoaren benetako ebazpenerantz abiatu beharrean.

Erronka hauei aurre egiteko, premiazkoa da aldaketak sartzeko osasun sisteman. Honek pertsona bakoitzaren eta gizarte osoaren erronka eta konpromisoa eskatzen ditu, aditzean ni pertsonarekin batera gu jokatzeko, baliozko ezer ekartzen ez duten errutina, klixerak, aurreiritzi eta inertziak uztea, eta, osasun gehiago sortzearen, haien lekuan ezartzea paradigma berriak, pazienteak eta haren beharrak gehiago artatzen dituztenak. Horrenbestez, osasun sistema eraberritu behar da, egun ditugun alderdi positibo guztiak erabiliz eraikitzea horretan.

Aldaketak iraupen luzekoa behar du izan, baina mailaz mailakoa, atzerapenik eta arrisku handiko jauzirik gabe. Agiri honetan –Oinarritzko Agiriaren jarraipena baita– xehetasunez zehazten dira Osasunbideak abiarazi beharreko jarduerak eta lortu beharreko helburuak, erronka hauei aurre egiteko. Indarraldia 2020 artekoa badu ere, plan hau sortu da bide bati hasiera eman nahirik, hainbat urte gehiagorako norabidea izan dezagun urtero eguneraketak eginez; izan ere, proposatutako aldaketa askok denbora behar dute erabat gauzatzeko. Orobat sortu da berrikuntzak sartu nahirik etengabeko ikaskuntzaren ondorioz, ikaskuntza horrek ahalbidetuko duelarik kultura eta antolaketa aldatzea osasunaren alorreko emaitzak etengabe hobetzeko.

Harro sentitu gaitezke, baina gogoan izanda erronka pizgarri eta zaila dugula: etengabe goi mailan edukitzea eta hobetzea Osasunbidea eta, bereziki, Nafarroako Osasuna eta nafarrena.

Aldez aurretik, mila esker.

Oscar Moracho del Río

Osasunbidea-NOZko zuzendari kudeatzailea



Aurkibidea

“OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Nafarroako osasun-sistemaren estrategia etengabeko ardura eta prozesu jarraitua da; izan ere, ahaleginak egoki bideratzea hasierako gakoa da edozein proiektu konplexuk arrakasta izateko. 2015ean hasi zen gaur egungo estrategia garatzen, zuzendaritza-taldeak zenbait plan eta proiektu identifikatu zituenean. Plan eta proiektu horiek arrakastaz egiten ari ziren edo horiek hastea lehentasunezko zatitza jo zen. Hasiera batean premiazko zatitza jotako arazoak ezagutzeari eta horiei ekiteari eman zitzaion arreta (sarrera eta itzarote-denborak hobetzea, deskapitalizazio teknologikoa), baita lana garatzeko behar zen egituraz hornitzeari ere. Baina denbora horretan zehar, prozesu ordenatu eta parte-hartzaile baten bidez eratu da estrategia, eta prozesu horrek bi fase nagusi izan ditu.

PROZESU METODOLOGIKOAREN 1. FASEA: PARTE-HARTZEA

Hasieran gogoeta estrategikoa egin zen aginte-taularen (AT) metodologiaren bidez. Tresna integratzailea da eta elkartearen ikuspegiak eta dimentsioak batzeko balio du, baita gogoeta partekatua egiteko ere, estrategia ezartzeari, garatzeari eta elkartearen prozesuekiko eta emaitzekiko koherentziari buruz. Bi helbururekin garatu zen: esku-hartze nagusiei lehentasuna ematea eta ezarpenaren betetze-mailaren jarraipen sakona egitea. Horrela, erabilgarritasuna eta Osasunbidearen ibilbidea egokitasunez zuzentzeko gaitasuna erakutsiko ziren.

Hori egiteko, Osasunbidea eta Osasun Departamentuko 22 zuzendarik aurrez aurreko saioak eta lehenespen-jarduerak egin zituzten 2015eko azaroan. Identifikatutako dimentsioak garatzeko behar ziren planak eta proiektuak identifikatu eta gero, lehenespen-jarduera parte-hartzailea egin zen Oinarrizko Laguntzako 28 zentrotarekin, Nafarroako Osasun Kontseiluarekin, bost zentroetako Asistentziako Bartzorde Teknikoekin, Kontsumitzaileen Elkartearekin eta medikuen, erizainen, psikologoekin, farmazialarien eta gizarte-langileen elkargo profesionalekin. Parte hartzeko jarduera horretan jarduteko 12 ildo lehenetsi ziren, gaur egungo "Osasunaren alde bidea eginez" strategiaren elementu nagusia osatzen dutenak eta, estrategia garatzen eta ezartzen laguntzeko, 2016an eta 2017an zentrotarekin lehenengo programa-kontratuak abiarazteko aukera ematen dutenak.

PROZESU METODOLOGIKOAREN 2. FASEA: GOGOETA ETA NAZIOARTEKO BERRIKUSPENA

Aurrekoa oinarritzat hartuta, heldze-aldi baten ostean eta beharrezkoentzat jotako planak eta proiektuak abiarazi eta gero, bigarren gogoeta-prozesu bat egin zen lehenetsitako ildoekin inguruko ikuspegi eta kontakizun bat bilatzeko helburuarekin. Jarduera hori 2016ko azaroaren eta 2017ko martxoaren artean egin zen, eta 29 zuzendarik eta sektoreko eragilek parte hartu zuten.



Hori garatzeko, erreferentziazko hainbat osasun-sistematan egiten ari diren plan-gintza estrategikoaren arloko joerak aztertu dira. Halaber, ahalegin berezia egin da herritarrek eta interes taldeek hobeto ulertzeko moduko kontakizuna ezartzeko; izan ere, eragile guztiek proiektuarekin bat egiteak erabateko garrantzia du hark arrakasta izan dezan.

Prozesu horretan zehar, aurretik maila operatiboan prozesu zorrotza egin zenez, egoki bideratutako oinarri sendoa osatu zelako uste osoa zegoen. Hala ere, identifikatutako lau helburuen inguruan antolatzeak eta lehenetsitako 12 ildoek horri emandako laguntzak ulermena hobetzen dute eta aukera ematen dute ahaleginak beharrezko sistema-eraldaketara bideratzeko.

"Osasunaren alde bidea eginez" strategiak aukera eman du gaur egun lan-agenda bat izateko, hain zuzen, esku-hartze eta proiektu guztien jarraipen sakona eta al-daketa bultzatzeko 12 ildoak berariaz lehenestea konbinatzen dituen lan-agenda.

Garrantzitsua da azpimarratzea proiektuan parte hartu duten pertsonen izaera parte-hartzailea eta kohesiboa, eta, halaber, aipatu behar da haien inplikazioak eta heldzeak ahalbidetu dutela gaur egun dokumentu hau eskura izatea.

“OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIAN LEHENETSITAKO 12 ESKU-HARTZEEN XEHETASUNAK


“Osasunaren alde bidea eginez” estrategia esku-hartze kopuru zehatz batez osatuta dago, eta Osasunbideak neurri handiagoan edo txikiagoan ekin behar die horiei, bai eraldaketarako, bai egunerokotasunean kudeaketa-sistemaren zorrotasuna eta eraginkortasuna ziurtatzeko. Gogoeta antolatzeke, ekintzak lehenesteko, xedeak ezartzeko eta aurrerapenak neurtzeko erabili den aginte-taulak (AT) 3 jarduera-ar-datz, 7 helburu estrategiko, 24 ildo estrategiko, 62 dimentsio eta 130 proiektu baino gehiago ditu. Proiektu gehienak dagoeneko abiarazi dira, eta gainerako gehienak oso definituta edo aurreratuta daude.

Nafarroako osasun-taldeak egindako lehenespen-prozesuaren ondorioz, garatzeko bultzada berezia behar duten 12 ildo estrategiko adierazgarrienak hautatu dira. Lehenespen horrek Osasunbideako zuzendaritza-taldearen ahalegin koordinatuak era berezian bideratzeko aukera eman du, ATn definitutako gainerako esku-hartze garrantzitsuak garatzen jarraitzea eragotzi gabe.

Honako hauek dira lehenetsitako esku-hartzeak¹:

- 1. PERTSONA AKTIBOAK OSASUN-SISTEMA PROAKTIBO BATEAN** (Osasunaren sustapena eta norberaren zainketa).
- 2. SENDATZEA BAINO, PREBENITZEA HOBE** (Prebentzioa eta detekzio goiztiarra).
- 3. PERTSONA AHULENENTZAKO LAGUNTZA LEHENESTEA** (Desgaitasuna prebenitzea eta autonomia sustatzea, osasuna politika guztietan eta ekitatea).
- 4. LAGUNTZA INTEGRATZEA PAZIENTE BAKOITZARI BALIO ETA SEGURTASUN HANDIAGOA ESKAINTZEKO** (Laguntza integratua, eraginkorra eta segurua).
- 5. PAZIENTEEI LEKU ETA MEMENTO EGOKIAN LAGUNTZA EMATEA** (Arintasuna eta itxarrote-denborak).
- 6. ESPAZIO SOZIOSANITARIOA BATERA LANTZEA PAZIENTEEN ETA HAIEN FAMILIEN BIZIKALITATEA HOBETZEKO** (Laguntza soziosanitarioa).
- 7. KALITATEAREN ARLOKO BERRIKUNTZA** (Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza).
- 8. PROFESIONALEN, PAZIENTEEN ETA HERRITARREN EBOLUZIOAN AURRERA EGITEA** (Informazio- eta ebaluazio-sistemak).
- 9. BALIABIDEAK MODU EZIN HOBEAN ERABILTZEA OSASUN UNIBERTSALA BERMATZEKO** (Jardueren eraginkortasuna).
- 10. LAGUNTZAREN KALITATEA HOBETZEKO PRESTAKUNTZA DUTEN PROFESIONALAK** (Garapen profesionala eta ezagutzaren garapena).
- 11. PAZIENTEEKIKO INPLIKAZIOA DUTEN TALDE PROFESIONALAK** (Profesionalen inplikazioa eta gogobetetzea).
- 12. PROFESIONALEK KUDEAKETAN PARTE HARTZEA LAGUNTZA HOBETZEKO** (Gobernamentu klinikoak).

1. Parentesi artean aginte-taulan erabilitako jarduera-ildoaren aurreko izena sartu da



Esku-hartze horiek deskribatzeko, esku-hartze bakoitzaren informazio hau emango da:

1. Estrategiaren lau helburu nagusiekin lerrokatzea.
2. Esku-hartze bakoitza identifikatzea arrazoitzen duten printzipio nagusiak.
3. Esku-hartzearen deskribapena eta xede diren biztanleak edo erakundearen zer mailari/funtziori dagoen zuzenduta.
4. Esku-hartzearen jarraipena egiteko emaitza-adierazleak.
5. 2015eko adierazlearen abiapuntua eta 2020rako lortu beharreko jomuga (2015eko datuaren adierazlea eskuragarri ez dagoenean edo fidagarria ez denean EE agertuko da).

Azpiko taulan ildo estrategiko bakoitzak jomuga hirukoitz hedatuaren dimentsio bakoitzean duen inpaktua sartu da, baita horren orientazioaren edo edukiaren larburpen bat ere.


JOMUGA HIRUKOITZ HEDATUA

LEHENETSITAKO ILDO ESTRATEGIKOAK		BIZTANLEEN OSASUNA	ZAINKETAK ETA PAZIENTEAREN ESPERIENTZIA	ERAGINKORTASUN HANDIAGOA	PROFESIONALEN INPLIKAZIOA	EDUKIA
A BIZTANLEEN OSASUNA	a.1 Pertsona aktiboak osasun-sistema proaktibo batean	■	■	■		Sareko lana eta "komunitate aktiboak" zein herritarren autozainketarako gaitasuna erraztuko dituen ehun komunitarioa garatzen laguntzea.
	a.2 Sendatzea baino, prebenitzea hobe	■		■		Laguntza-eredua optimizatzeko orientazioa, laguntzarik onena eta lekurik egokienean eskaintzen saiatuz, helburu honi dagokionez: ahal den neurrian jarduera asistentziala paziente bakoitzaren etxean, oinarrizko laguntzan edo ingurune komunitarioan ematea.
	a.3 Pertsona ahulენტzako laguntza lehenestea	■		■		Biztanleria-talde jakinetan jarduteko neurriak prestatutako esku-hartzeak garatzea, honako hauek lehenetsiz: Nafarroako heriotza-tasa handiena duten gaixotasunak garatzeko arrisku handiena duten gizataldeak, gaitz kronikoak dituzten biztanleak, biztanleria-talde ahulenak eta desperekotasun handienak dituztenak.
B PAZIENTEAREN ZAINKETA	b.1 Laguntza integratzea paziente bakoitzari balio eta segurtasun handiagoa eskaintzeko	■	■	■		Osasun-arazoa agertu aurreko egoeretara bideratutako esku-hartzeak garatzea edo hobetzea, aurreko hartzea eta eskaerei erantzutera ez mugatzea; horretarako, ebidentzietan oinarritutako, komunitatera bideratutako eta biztanleen beharrak modu eraginkor eta seguruan asetzeko esku hartzeko modu berriak eskaintzea.
	b.2 Pazienteei leku eta memento egokian laguntza ematea	■	■	■		Dauden prozesuak hobetzeko edo barne-funtzionamenduko prozesu berriak garatzeko orientazioa. Horiek honako hauek bermatu beharko dituzte: lehenengo kontsultetarako, proba osagarrietarako eta kirurgia-operazioetarako sarbidea, bereziki osasunean inpaktu handiena duten gaixotasunak diagnostikatuzko susmoa dagoen kasuetan.
	b.3 Espazio soziosanitarioa batera lantzea pazienteen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko		■	■		Arlo sozialaren eta sanitarioaren arteko mugak gainditzeko orientazioa, betiere biztanle bereziki ahulenei zainketak, laguntza integrala eta kalitatezkoa ematen jarraitzen zaizkiela bermatuta.
C ERAGINKORTASUN HANDIAGOA	c.1 Kalitatearen arloko berrikuntza			■	■	Arreta jartzen dute prozesu asistentzialak sektoreko praktika onetara (eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoaren arabera) gehiago egokitzearen eraginez sortutako kalitatean eta segurtasun klinikoan.
	c.2 Profesionalen, pazienteen eta herritarren eboluzioan aurrera egitea		■	■		Osasun-zerbitzuekin harremana duten herritarren zainketa eta esperientzia onenak erraztuko dituzten tresna teknologikoak garatzea sustatzea.
	c.3 Baliabideak modu ezin hobean erabiltzea osasun unibertsala bermatzeko		■	■		Barne-funtzionamenduaren garapenean hobekuntzak lortzeko arreta jartzea, eraginkortasunari dagokionez. Kudeaketa hobea eta kalitate eta segurtasun kliniko handiagoak gauza batzuk egiteari uztea eta gure baliabideak beste zerbitzu eta prestazio batzuetan inbertitzea ahalbidetzen dute.
D PROFESIONALAK	d.1 Laguntzaren kalitatea hobetzeko prestakuntza duten profesionalak		■	■	■	Osasun-arloko profesionalak, kudeatzaileak eta pazienteak lerrotzea eta horien arteko lankidetzak bilatzea. Profesionalak erakundeetan lan egiten duten pertsona guztiak dira. Pertsonen laguntza emateko behar berrietara bideratutako ezaugarri eta gaitasun espezifikoak dituzten profil berriak definitu behar ditugu.
	d.2 Pazienteekiko inplikazioa duten talde profesionalak		■		■	Proiektu hau aurrera ateratzeko profesional guztiak dira behar-beharrezkoak. Estrategia profesionalen eguneroko jardueran zehazten da eta horiek estrategia definitzen eta garatzen lagundu behar dute, haien gogobetetzea handituko duten lidergo-eredu baten bidez.
	d.3 Profesionalek kudeaketaren parte hartzea laguntza hobetzeko	■	■	■	■	Kultura kliniko eta kudeaketaren kultura integratzea, egun dagoen bereizketa gainditzea ahalbidetuko diguten tresnez hornituz.

A

BIZTANLEEN OSASUNA HOBETZEA

a.1 PERTSONA AKTIBOAK OSASUN-SISTEMA PROAKTIBO BATEAN



Printzipio nagusiak

Besteak beste, honako hauek dira jarduera-ildo honen oinarritzko printzipio nagusiak:

- Nahikoa ebidentzia zientifikoa dago osasuna, autozainketak eta osasun-desberdintasunen murrizketa sustatzea egokia dela ziurtatzeko.
- OMEren eta nazioarteko hainbat organismoren estrategiek bermatzen dute osasuna sustatzeko oinarritzko ildoak gehitzea sistemaren jasangarritasuna modu konbinatuan ziurtatzeko forma gisa, eta, bereziki, hazten ari den pertsonen bizikalitatea ziurtatzeko forma gisa.
- Nazioartean bultzatutako osasuna sustatzeko estrategiek honako hauek barne hartzen dituzte: zerbitzuak berriz bideratzea osasuna sustatzeko ikuspegiak txertatuz, gizarte-ekintza, osasunaren hezkuntza bultzatzea eta komunitate-ekintza indartzea zein inguruneak hobetzea.
- Nafarroan baldintza pribilegiatuak daude, hala nola populazioaren neurria, osasun-profesionalen trebakuntza eta departamentuarterako, diziplinarterako eta asoziazio baliabide profesionalak tokian integratzeko potentziala, tokiko laguntzarekin, laguntza profesionalarekin eta osasun-sistemaren laguntzarekin osasuna sustatzeko politikak garatzeko.
- Osasuna sustatzeko politikak, ekintzak eta metodologia garatzeak aukera ematen du laguntza-prozesuen ikuspegi integratzaile berri bat eskaintzeko, eta, osasun-sistemaren ardatz gisa, pertsonentzako laguntzarekin eta horren prozesuekin lotutako dimentsioak gehitzeko. Proposamen horiek erakundeen adierazpen gehien parte dira, baina orain arte jarduera profesionalari arreta eman dioten asistentzia-paradigmetan izan du isla praktikoa pertsonengan eta beren egoerengan baino.
- Pertsonak eta komunitateak ahalduzko ekintzek, haien osasun- edo gaixotasun-egoerak hobetzearekin lotuta daudenean, osasun-zerbitzuen ekintza berriz bideratzen dute. Jasangarritasuna hobetzeaz gain, aukera ematen dute autozainketak behar izan ditzaketen prozesuak kudeatzeko gaitasuna hobetzeko, eta askotan beharrezkoak ez diren eta eraginik sortzen ez duten eskakizunak saihesten dituzte.

Lehenetsitako esku hartzeko arloak

- **Laneko sare profesionalen eta sare komunitario kolaboratiboaren garapenari** laguntzea zerbitzuekin, entitateekin, elkarteekin edo tokiko kolektiboekin, laguntza integralagoa


emateko eta norberaren osasunaren zainketaren eta autozaintzare kultura sustertzeko, baita gehiegizko medikalizazioa saihesteko eta laguntza osoko sare profesionalak eta zainketako gizarte-sareak garatzeko.

- **Osasun-zerbitzuak zentzuz eta eraginkortasunez erabiltzeko kultura** sustatzea.
- Egitura-ekintzak garatzea herritarrek ahalduntzeko eta trebatzeko, haien **autozaintetei** dagokienez.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA	
Sare komunitarioa garatzea	Oinarrizko osasun-eremuetan (OOE) bizimodu osasungarriak sustatzeko "erkidego aktiboak" garatzea	0	> 20 00E	
Autozaintetak	Tabakismo-tasa murriztea	%23	< %22	
	Obesitate-tasa murriztea	%11,7	%9	
	"Bizimoduaren errezetak" edo bizimodu osasungarriako aginduak jasotzen dituzten biztanleen kopurua urtero handitzea	ND	↑%3	
	"Alkoholaren erabilera problematikoa" (intoxikazio akutuak) murriztea	15-17 urte	%26,3	%25
		18-64 urte	%18,8	%17,9
		"Adinekoentzako egoitza aktiboen" kopurua handitzea	0	>20
	Gomendatutako jarduera fisikoa egiten duen 65 urtetik gorako pertsonen kopurua handitzea	EE	↑%10	
	Hezkuntza afektiboa eta sexuala landuko dituzten kontsultak eta gazteentzako programak	1	10	

a.2 SENDATZEA BAINO, PREBENITZEA HOBE



Printzipio nagusiak

Besteak beste, honako hauek dira jarduera-ildo honen oinarrizko printzipio nagusiak:

- Kalitate handiko ebidentzia zientifikoa eta gomendio-maila altua daude patologia eta gizatalde jakin batzuekin prebentzioko eta detekzio goiztiarreko esku-hartzeak egiteko egokitasuna ziurtatzeko.
- Nahikoa ezagutza eta antolamendu-gaitasun eta -esperientzia daude sisteman estaldura handiko esku hartzeko programak garatzeko. Estaldura horren ondorioz, inpaktu handia aurreikus dakieke herritarrei zein azpipopulazio espezifikoei zuzendutako programei.
- Osasun-arazo baten aurretiko edo hasierako faseetan esku hartzeak aukera ematen du gizarte- eta osasun-sistemaren baliabide-kontsumoa murrizteko, hain zuzen ere, osasun-arazo horren historia naturalaren osteko uneetako esku-hartzetik eratorriko liratekeen baliabideena. Hautzaroko inbertsioek lortzen dituzte giza kapitaleko inbertsioaren itzulera-tasa handienak.

Xede diren biztanleak dituzten lehenetsitako jarduera-eremuak

PATOLOGIA ONKOLOGIKOA

Bularreko minbizia. Detekzio goiztiarra Nafarroan bizi diren 45 eta 69 urte arteko emakumeengan, eta 35 urtetik gorakoengan bularreko minbiziarekin lotutako familia-aurrekariak dituztenen kasuan (gaur egun % 100).

Kolon-ondesteetako minbizia. Detekzio goiztiarra Nafarroan bizi diren 50 eta 69 urte arteko sintomarik gabeko pertsonengan.

Utero-lepoko minbizia. 11-12 urteko emakumeei GPBaren kontrako txertoa jartzea eta detekzio goiztiarra baheketa zitologikoaren bidez.

METABOLOPATIAK. Jaioberrien % 100entzako herritar-estaldura, honako hauek barne hartzen dituena: sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, fibrosi kistikoa, kate er-taineko azil A koentzima deshrogenatuaren urritasuna, kate luzeko 3-hidroxi azil A koentzima deshrogenatuaren urritasuna, I. motako azidemia glutarikoa eta anemia faltziformea.

ZAHARTZE AKTIBOA ETA OSASUNGARRIA. 60 urtetik gorako biztanleak.

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAK. Zaurgarritasun handiagoko haurrak.


BIZIMODU OSASUNGARRIAK. Biztanle guztiak eta arrisku handiagoko edo onura potentzial handiagoko pazienteak edo biztanle-taldeak.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Bularreko minbizia	Bularreko minbiziak emakumeengan eragindako heriotza-tasa murriztea	%10,6	< %10
Kolon-ondesteetako minbizia	Kolon-ondesteetako minbiziak garaiz detektatzeko programan parte hartzen hastea	%67,5	> %67
	Kolon-ondesteetako minbiziak eragindako heriotza-tasa murriztea	%22,6	< %22,4
Utero-lepoko minbizia	11-12 urteko emakumei GPBaren kontrako txertoa jartzea	%77,5	> %86

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Zahartze aktiboa eta osasungarria	Zahartze osasungarrirako gomendioei gero eta herritar gehiago atxikitzea	EE	↑ %10
	Jarduera fisikoa egiteko, elikadura osasungarrirako edo sexualitate osasungarrirako agindua jasotzen duten 65 urtetik gorako adineko pertsonen kopurua urtero handitzea	EE	↑ %10
	65 urtetik gorako pertsonen desgaitasunik gabeko urteak handitzea	14,9	16,4
	Bizitzaren azken bost urteetan etxean bizi diren pertsonen kopurua handitzea	EE	↑ %10
Baztertutako gizataldeentzako lehenetsunezko laguntza	6 urtetik beherako haurren arrisku psikosoziala ebaluatzea	EE	> %85
Haur eta gazteentzako programak	Haur eta nerabeen obesitatea murriztea	%7,8	< %7
Bizimodu osasungarriak	Arazo kronikoak dituzten biztanleei bizimodu osasungarrirako agindu gehiago ematea	EE	↑ %5
	14-17 urteko erretzaileen kopurua murriztea	%7,9	< %7,8
	Eguneroko fruta freskoaren kontsumoa handitzea	%64	> %66
	Biztanleen sedentarisinoa murriztea	%28	< %26

a.3 PERTSONA AHULENTZAKO LAGUNTZA LEHENESTEA



Printzipio nagusiak

- Autonomia pertsonala galtzeari edo desgaitasuna izateari dagokienez ahulagoak izan daitezkeen gizataldeak edo biztanleak daude.
- Esku hartzeko estrategia bat garatzen hastea erabaki da. Horren helburua da bereziki ahulak diren biztanle horien artean desgaitasuna prebenitzea eta autonomia mantentzea.
- Nafarroako biztanleok Europako bizi-itzaropen handienetakoa dugu (86.6 urte emakumeena eta 80,6 urte gizonena), baina badago zereginik bizi-itzaropen luze hori osasun onarekin hobetzeko.

- Urteak igaro ahala, handitu egiten da prozesu kronikoen prebalentzia eta desgaitasuna. Osasunbidearen estrategiaren helburuetako bat zahartze-prozesu aktibora dago orientatuta.

Esku-hartzearen deskribapena eta xede diren biztanleak

AUTOZAINKETAK

- Biztanle-talde jakinetan autozainketak sustatzea.
- **Zaintzaileak zaintzea** haien gaikuntza babestuz eta hobetuz.

GAITASUN FUNTZIONAL HOBETZEA

- **Etxeko errehabilitazioa** jasotzeko aukera hobetzea.
- **Errehabilitazioko laguntza hobetzea:** errehabilitazio neurologikoa, bihotz-errehabilitazioa eta arnas-errehabilitazioa.

OSASUN MENTALA

- **Estimulazio kognitiboa** demenzia arinen kasuetan.
- **Detekzio eta esku-hartze goiztiarreko programa lehenengo gertakari psikotikoen aurrean**, Europar programa aitzindaria dena.

FARMAZIA

- **Koordinaketa farmazeutikoa erregulatzea** urtean 18.000 € baino gutxiagoko errentako mailetan, bai gizatalde aktiboen bai pentsiodunen kasuan. Horrela, arazo ekonomikoengatik terapiarik jasotzen ez dutenen kopurua murriztuko da.

Adierazleak eta emaitzen helburuak


ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Autozainketak	Hautatutako patologiei dagokienez autozainketetan prestakuntza duten paziente kronikoen ehunekoa	EE	> %60
	Urtero 200 paziente eta/edo zaintzaile baino gehiago prestatzea pazienteen eskolan	200	>1.000
Hobekuntza funtzionala	Etxeko errehabilitazioa egin eta gero ezarritako helburu funtzionala lortu duten pazienteen ehunekoa	0	> %70
	Bihotz-prozesu edo prozesu neurologiko definituen diagnostikoa duten eta alta jasotzerakoan errekonferentzia-modalitateen bat eskaini zaien pazienteen ehunekoa	EE	> %70
	Ospitalizatuta egon diren bitartean narriadura funtzionala saihesteko programa bat eskaini zaien paziente ahulen ehunekoa	EE	> %50
	Errekonferentzia funtzionaleko eta arnas-errekonferentzioko ekintzetarako agindua eman zaien eta BAGK diagnostikoa duten pazienteen ehunekoa	EE	> %90

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Osasun mentala	Estimulazio kognitiboa agindu zaien eta dementzia arina duten pazienteen ehunekoa	EE	> %95
	Lehenengo gertakari psikotikoa izan duten eta detekzio eta esku-hartze goiztiarreko programa bat eskaini zaien pazienteen ehunekoa	0	%100

B

PAZIENTEEN ZAINKETAK ETA ESPERIENTZIA HOBETZEA

b.1 LAGUNTZA INTEGRATZEA PAZIENTE BAKOITZARI BALIO ETA SEGURTASUN HANDIAGOA ESKAINTZEKO



Printzipio nagusiak

- Azken urteetan, osasun-zerbitzuen orientazioak handitzen ari diren ekintza medikoak eta asistentzia-prestazioak produzitzeari eman dio arreta, handitzen ari diren biztanleen eskakizunak eta itxaropenak direla medio, gizartearen gehiegizko medikalizazioagatik nahiz asistentzia-prozesuen egokitasunari eta eraginkortasunari buruzko azterketa sakonen mugapenagatik. Beharrezkoak ez diren ekintzak, hau da, ebidentziaren babesik ez dutenak, baliorik ez dakartenak edo eskakizun desegokien bidez konplazentziari bakarrik erantzuten diotenak murriztea edo kentzea atzeratu ezin den erronka bat da, sistemaren eraginkortasuna eta jasangarritasuna bermatzeko eta balizko iatrogenia txikitzeko.
- Bestalde, populazioan gertatzen ari den aldaketa epidemiologikoaz, zaharkitzerako eta kronikotasunerako joera duenez ohartu gara. Horren ondorioz, eskaintzen ari garen laguntza-ereduaren inguruko hausnarketa egin eta biztanleen beharrei erantzuten dien sistema jasangarri batera bideratutako antolakuntza-eredu bat proposatzen dugu.
- Elkarrearen helburu nagusia da erabiltzaileen beharrak eta nahiak betetzea arrazoikotasun-irizpideen barruan, giza baliabideetara eta erabilgarri dauden materialetara egokituz eta beti prozesuak etengabe hobetzera bideratuz.
- Aspalditik egiaztatu da ospitalizazio tradizionala ez diren beste aukera batzuk hautatu dituzten pazienteen eraginkortasuna eta gogobetetzea, hala nola ospitaleratzetik gabeko kirurgia edo etxeke ospitaleratzera hautatu dutenena. Modalitate horiek asko hobetu daitezke oraindik gure sisteman.
- Progresiboki sistemaren ebazpen-gaitasuna handitu behar da, ospitale-eremuko laguntza baino paziente bakoitzaren komunitateko eta beren etxetik gertuko inguruneko laguntza lehenetsiz.

- Duela 15 urte baino gehiago, segurtasun kliniko nazioarteko mugimendu bihurtu da asistentziatik eratorritako ondorio kaltegarriei buruzko "To Err is Human" txostenaren argitaratzearen ondorioz. Nafarroak 2005ean hasi zuen ibilbidea, eta ordutik aurrerapen garrantzitsuak egin badira ere, segurtasuna asistentzia-kalitatearen lan-ildo nagusia eta iraunkorra izan behar da.
- Beste helburu nagusietako bat humanizazioa da, Nafarroako osasun-sistemako erabiltzaileek jasotzen duten giza tratua erabiltzeko duten gogobetetzea hobetzeko. Horretarako, pertsonak jasotzen duen laguntzara bideratu behar da sistema, eta lagundutako pertsonen balioak errespetatu behar dira. Horrela, osasun-sistema-aren barruan humanizazioa suspertu eta kultura hori garatzeko behar diren baldintzak sortuko dira.

Esku-hartzearen deskribapena

- **Arazo kronikoak eta patologia anitzak dituzten pazienteentzako laguntza-estrategia** hedatzea: bihotzeko gutxiegitasuna, dementzia, fibromialgia, diabetes mellitusa, eskizofrenia, esklerosi anizkoitza, AEA, kardiopatia iskemikoa, BAGK, hesteetako gaixotasun inflamatorioa, GHI, asma.
- **Gaitasun funtzionala hobetzeko plana.**
 - ... Laguntza integratuko prozesuak definitzea (lunbalgia, zerbikalgia, belauna, sorbalda mindua, min kronikoa, aldakako haustura).
 - ... Adierazpenak eta zirkuituak definitzea terapia interbentzionistetan (blokeoak, sorbaldako kaltzifikazioen ziztada-xurgapena, talka-uhinak).
 - ... Kasu konplexuetarako gaixotasun muskuloesketikoen diziplinarteko unitate funtzionala.
 - ... Bihotz- eta arnas-errehabilitazioa garatzea.
 - ... Etxeko fisioterapia gehitzea.
 - ... Oinarrizko laguntzatik fisioterapiara zuzenean desbideratzea adostutako prozesuetan.
- **Ebazpen-gaitasuna handitzea oinarrizko laguntzan** eta behar berdinetarako laguntza homogeneoa bermatzea osasun-sistema osoan.
- **Ebazpen-maila handitzea definitutako prozesu klinikoetan.**
 - ... Asistentzia-integratioko taldeak sortzea erkidego osoan ezar daitezkeen ekintzak baloratzeko.
 - ... Lehenetsitako lan-arloak: dermatologia, digestiboa, kirurgia baskularra, endokrina, urologia.
- **Etxeko ospitalizazioa.**
 - ... Etxeko ospitalizazioa hedatzea Nafarroako lurraldeko % 100era.
- **Mina/zainketa aringarriak.**
 - ... Zainketa aringarriak hedatzea paziente ez-onkologikoei.
- **Pazientearen segurtasun kliniko hobetzea.**
 - ... Infekzio nosokomiala prebenitzeko programa (bakteriemia eta Zero pneumonia, antibiotikoak egoki erabiltzea, eskuak garbitzea).
 - ... Osasun-gailuekin lotutako akatsak prebenitzeko programa (medikazioa bateratzea, sistema adituak eta agindu farmakologiko egokirako laguntzak).

- ... Kirurgia-arloko arazoak prebenitzeko programa (egiaztapen-zerrendak, tronboenbolismoaren prebentzioa).
- ... Osasun-zainketekin lotutako arazoak prebenitzeko programa (erorketak prebenitzea, etzainerako ultzerak prebenitzea).
- ... Asistentzia-arlo medikoetan eta diagnostikokoetan arazoak prebenitzeko programa.
- ... Zalantzarik gabeko identifikazio- eta jakinarazpen-sistemak.

● Pazienteen gogobetetzea

- ... Oinarrizko laguntzako eta laguntza espezializatuko pazienteei **gogobetetze-mailari buruzko inkestak** egitea, zentroen artean hobekuntza-planak eginez.
- ... **Prozesu lehenetsietako pazienteen esperientzia eta gogobetetzea hobetzea**: minbizia, iktusa, prozesu kronikoak.
- ... **Humanizazio Plana** egitea eta abiaraztea.


Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Kronikoen estrategia	Kubo gorria duten pazienteak urtean larrialdietara zenbatetan joaten diren batez beste	EE	< 1
	Kronikoen strategiako pazienteen artean saihestu daitezkeen ospitalizazioen tasa	%6,73	< %2
	Zainketekin jarraitzeko txostena duten pazienteen ehunekoa	%22	> %70
	Kubo gorria duten eta medikazioa bateratu zaien (bai ospitaleratzean bai ospitaleko alta hartu ondoren) pazienteen ehunekoa	%0	> %98
	Ospitaleko alta jaso eta hurrengo 24 orduetan oinarrizko laguntzaren taldearekin harremanetan jarri eta kubo gorria duten pazienteen ehunekoa	EE	> %98
Hobekuntza funtzionala	LMLNS (lehen mailako laguntzaren nazioarteko sailkapena) duten eta errakiko minarekin, sorbalda minduarekin eta min kroniko ez-onkologikoarekin lotutako talde-tailerretara joaten diren pazienteen ehunekoa, diagnostiko horiek dituzten paziente guztien artean	EE	> %60
Oinarrizko laguntzaren ebazpen-maila	1.000 biztanleko oinarrizko laguntzan kirurgia txikia egin zaien pazienteen tasa	11,88	> %25
	Integrazio-taldeen definitutako prozesuetan oinarrizko laguntzatik laguntza espezializatura bideratutako pazienteen ehunekoa	EE	↓ %70
Etxeko ospitalizazioa	Etxeko ospitalizazioen/ospitalizazio tradizionalen ehunekoa	%3,11	> %12

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Zainketa aringarriak	Egoera terminalean dauden eta zainketa aringarriak dituzten pazienteen ehunekoa	EE	> %98
	Minaren ebaluazioa egin zaien eta zainketa aringarriak dituzten pazienteen ehunekoa	%50,4	> %98
Mina	Alta jasotzerakoan mina baloratzeko eskalan 2 puntu baino gutxiago dituzten pazienteen ehunekoa	EE	> %80
Segurtasun klinikoa	Infekzio nosokomialaren prebalentzia	%6	< %5,5
	Egjaztapen-zerrendekin irekitako kirurgia-operazioen ehunekoa	%64	> %95
	Alta jasotzean sepsia duten pazienteen hilgarritasun-tasa	%28,20	< %23
	> 8 sendagai dituzten eta azken urtean medikazioa berrikusi zaien pazienteen ehunekoa	%0	> %90
	Azken urtean erortzeko arriskua baloratu zaien > 75 urteko pazienteen ehunekoa	%29	> %90
Pazienteen gogobetetzea	Pazienteen gogobetetze globala	OA:8,54 AE:8,52	> 8,6
	Minbiziagatik, iktusagatik edo prozesu kronikoengatik laguntza eman ondoren balorazio positiboa duten pazienteen ehunekoa	EE	> %90

*2016 datuak dira, ez baitago 2015eko inkestarik.

b.2 PAZIENTEEI LEKU ETA MEMENTO EGOKIAN LAGUNTZA EMATEA



Printzipio nagusiak

- Herritarrek eskuratu duten oinarrizko eskubidea da honako hau: osasun-konplikazio larriagoak ekiditeko, osasun-arazoak arazoizko denbora-tartean sendatzeko edo arintzeko beharrezkoak diren diagnostikoetarako edo tratamenduetarako sarbidea izatea.
- Nafarroako osasun-sistemak kontuan hartzeko moduko ibilbidea egin du hobetzeari dagokionez, gure inguruko beste sistema batzuekin alderatuta.
- Ildo hau garatzea lehentasunezkoztat jotzen da gainerako guztietan aurrera egin ahal izateko.
- Lehenengo kontsultetan, jarraipen bereziko proba osagarrietan eta kirurgia-operazioetan laguntzaren denbora egokitzea lehentasunezko helburua da, batez ere diagnostikoa atzeratuz gero osasunari kalte egiteko susmoa dagoenean.

Esku-hartzearen deskribapena

- **Lehenengo kontsulten** jardueraren eskaintza handitzea, kontsulta arruntetan eta laguntza espezializatuko lehentasunezko kontsultetan itxaroteko egun naturalen kopurua gutxitu ahal izateko.
- **Proba osagarrien** jardueraren eskaintza handitzea, jarraipen bereziko proben (diagnostikorako eta baheketarako kolonoskopiak, ekografiak, mamografiak, erresonantzia magnetikoak, OTA) itxaroteko egun naturalen kopurua gutxitu ahal izateko.
- **Kirurgia-operazioen** eskaintza handitzea, 120 egun natural baino gutxiagoko epea ezartzen den kirurgia-prozeduretan bermeen legea betetzen dela ziurtatzeko.
- **Oinarrizko laguntzako taldeen** laguntzaren eskaintza bermatzea, bat-bateko kontsultetan 24 ordu edo gutxiagoko epean laguntza eman ahal izateko.
- **Patologia akutuko diagnostikoko susmoarekin** bideratutako pazienteei lehentasunezko laguntza ematea laguntza espezializatuan: Bereizmen handiko zirkuituak. Osasunbideako gutxienez 15 espezialitatek garatu du gutxienez bereizmen handiko zirkuitu bat.
 - ... Dermatologia: onkologia dermatologikoa.
 - ... Digestiboa: metastasia duen gibelaren susmoa, min hori mekanikoa, hepatitis akutuko susmo oinarriduna, neoplasia gaiztoko susmoa.
 - ... Paziente diabetiko konplexuak kirurgia baskularrean, nefrologian eta oftalmologian.
 - ... Kirurgia baskularra: arteriaren ultzerak.
 - ... Kardiologia: bularraldeko mina.
 - ... Neumologia: biriketako minbiziaren susmo oinarriduna.
- Laguntza-estrategia **denboraren mendeko larrialdietara** hedatzen dela bermatzea.


Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Zerbitzuetarako irisgarritasuna	30 egun igaro aurretik emandako lehenengo kontsulta arruntan ehunekoa	%9,35	> %90
	15 egun igaro aurretik emandako lehenengo kontsulten ehunekoa	%35	> %90
	45 egun igaro aurretik egindako jarraipen bereziko proben ehunekoa	%67	> %90
	120 egun edo gutxiagoko epean egiteko katalogatutako eta denbora-tarte horretan egiten diren kirurgia-operazioen ehunekoa	%70	> %90
	Egunean bertan oinarrizko laguntzako taldeen profesionalak egiteko eskatzen diren eta 24 orduko edo gutxiagoko epean egiten diren bat-bateko kontsulten ehunekoa	%78	> %90

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Bereizmen handia	Astebeteko edo gutxiagoko epean bularraldeko mina bereizmen handiko zirkuitu batean tratatzen zaien pazienteen ehunekoa	%0	> %90
	2 astetik beherako epean estenosi aortiko sintomatikoa bereizmen handiko zirkuitu batean tratatzen zaien pazienteen ehunekoa	%0	> %90
Minbizia	Biriketako, bularreko edo kolon-ondesteetako minbiziaren susmo oinarritutako eta osasun-sistemarekin lehen harremana izan zutenetik 60 eguneko epean tratamendua jasotzen hasi diren pazienteen ehunekoa	EE	> %90
	Anatomia patologiakoaren bidez minbizia diagnostikatu zaien eta lehen tratamendu gisa kimioterapia 7 egun baino gutxiagoko epean eman zaien pertsonen ehunekoa	EE	> %90
	Anatomia patologiakoaren bidez minbizia diagnostikatu zaien eta tratamendu kirurgikoa edo erradioterapia 30 egun baino gutxiagoko epean eman zaien pertsonen ehunekoa	EE	> %90
Irisgarritasuna patologien kasuan	Trauma akutua duten eta istripuaren ondoren ordu bateko denbora-tartean ospitaleko larrialdietako zerbitzu batean laguntza jasotzen duten pazienteen ehunekoa	EE	> %60
	Iktusak eragindako tronbolisia jasan dezaketen eta 60 minutu baino gutxiagoko denbora-tartean tratamendua jaso duten pazienteen ehunekoa	EE	> %80
	Miokardioko infartu akutua duten eta EKG diagnostikoa egin zaienetik angioplastia 60 minutu baino gutxiagoko denbora-tartean egin zaien pazienteen ehunekoa	EE	> %70
Gogobetetzea	Pazienteen gogobetetze-maila handitzea, oinarrituko laguntzako kontsulta eskatu ondoren horietara sartzeko berandutzei dagokienez (pazienteen inkesta)	7,89*	> 8,5
	Pazienteen gogobetetze-maila handitzea, laguntza espezializatuko kontsulta eskatu ondoren horietara sartzeko berandutzei dagokienez (pazienteen inkesta)	6,6*	> 8

* 2016 datu: k dira, ez baitago 2015eko inkestarik.

b.3 ESPAZIO SOZIOSANITARIOA BATERA LANTZEA PAZIENTEEN ETA HAIEN FAMILIEN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO



Printzipio nagusiak

- Pertsonen beharrak osasun-erlotik arlo sozialera doan eta muga argirik ez duen continuum batean banatzen dira. Antolamendu-ereduek ezartzen dituzte osasun-arloaren eta arlo sozialaren arteko mugak, alda daitezkeen irizpideen arabera.
- Erakundeek bermatu behar dute zerbitzu sozialen, soziosanitarioen eta sanitarioen arteko zainketen jarraipena. Era berean, zerbitzuen sailkapen horrek ez dio emandako laguntzari edo erabiltzaileek laguntza horrekiko duten pertzepzioari eragin behar.
- Helburu horrekin, beharrezkoa da atentzio soziosanitarioa osatzen duten erakunde eta zerbitzu guztientzat planifikaziorako, kudeaketarako eta asistentziarako tresnak garatzea.
- Oro har, jarduketak modu integratuan eta departamentuen artean planifikatu beharko dira eta modu berean ekin beharko zaie.
- Ildo estrategiko hau bereziki ahulak diren biztanleei dago zuzenduta, hain zuzen, gaixotasun kronikoak dituztenei, ezintasun funtzional larria edo mendekotasuna dutenei eta zainketa sozial eta sanitario oso konplexuak behar dituztenei, edo bigarren mailako ezintasun- eta mendekotasun-egoeratik prozesu akutuetara igarotzen direnei.

Esku-hartzeen deskribapena

- Laguntza sozial eta sanitarioko esparru guztietan banaka esku-hartzeko planak eta plan integratuak eratzten dituzten pertsonen beharren **ebaluazio integrala**.
- Egoitza-zentroetan **asistentzia sanitarioaren kalitatea hobetzeko plana**, hain zuzen, Osasunbidearen arazo kronikoak eta patologia anitzak dituzten pazienteentzako estrategiaren hedapenean adierazitako asistentzia sanitarioarena. Halaber, asistentzia sanitarioaren kalitatea hobetu behar da laguntza integratuko prozesuetan zein oinarritzko laguntzarekin eta laguntza espezializatuarekin koordinatzeko mekanismo guztietan.
- Ospitalean alta jaso ondoko **egoitza-susperraldiko eredu** garatzea, ohiko bizilekuan jaso ezin duten laguntza eta oinarritzko beharretarako laguntza behar duten pertsonentzat.
- **Etxeko errehabilitazioko eredu** bat ezartzea, honako prozesu hauek lehenetsiz: immobilizazio-sindromea, aldakako haustura, belauneko protesia, aldakako protesia eta iktusa.
- Osasunbidearen **farmazia-laguntzako eredu** egoitza-zentro soziosanitarioetara hedatzea.
- **Etxeko laguntza soziosanitarioa sustatzea**.
- Tafallako azpieskualdean laguntza integraleko proiektu pilotua abiaraztea.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Ebaluazio integrala	RAI-CA tresnaren bidezko ebaluazioa duten 85 urtetik gorako biztanleen ehunekoa	%0	> %60
Banaka esku-hartzeko planak	RAI-CA tresnaren bidezko ebaluazioarekin lehenetsitako eta banaka esku hartzeko planak dituzten biztanleen ehunekoa	%0	> %50
Laguntza-integrazioa	20 plaza baino gehiago eta Osasunbidearen historia kliniko elektronikorako (HKE) sarbidea duten egoitza-zentroyen ehunekoa	%20	%100
	HKErako sarbidea duten eta paziente kronikoak tratatzeko eta zainketa aringarriak emateko estrategian dauden egoitza-zentroyen ehunekoa	%0	> %80
	Aldakako hausturaren eta iktusaren ondoriozko ospitaleko batez besteko egonaldia murriztea alta goiztiarren bidez	EE	↓ %5
Farmazia-laguntza	Farmazia-laguntzako eredia Nafarroako egoitza publikoetara eta itunpeko egoitzetara hedatzea	230 ohe	1.000 ohe

C

OSASUNBIDEAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEA

c.1 KALITATEAREN ARLOKO BERRIKUNTZA

HERRITARREN OSASUNA HOBETZEA	PAZIENTEEN ZAINKETAK ETA ESPERIENTZIA HOBETZEA	ERAGINKORTASUN HANDIAGOA	PROFESIONALEN INPLIKAZIO HANDIAGOA
		■	■

Printzipio nagusiak

- Osasun-zerbitzuak taldean egindako estamentu antzeko esku-hartze multzo baten bidez ematen dira beti. Beraz, zerbitzuen kalitate teknikoaz gain, ezinbestekoa da haien balio erantsia eta emaitzak maximizatzen dituen antolamendu- eta kudeaketa-sistema bat.
- Bikaintasun-ereduak prozesuak berritzean eta emaitzak etengabe hobetzean oinarritzen dira, eta azken urteetan frogatu dute eragin handia dutela erakundeetan (osasun-erakundeetan zein beste arloetako erakundeetan) autoebaluazioko eta ikasketa jarraituko dinamikak eta kulturak txertatzeko, kudeaketaren kalitatea eta kalitatearen kudeaketa hobetze aldera.

- Berrikuntza, egiten duguna (prozesuak) aztertuz, emaitzak ebaluatzea, autokritika, profesionalen sormena eta jardunbide egokiak aztertzea eta ikastea (benchmarking) funtsezko tresnak dira estrategia abiarazteko nahiz osasun-arloko emaitzak etengabe hobetzeko.
- Zerbitzuak kudeatzeko gaitasuna asko handitu daiteke oraindik, azken urteetan prestakuntza espezifiko urria izan delako eta kalitatea kudeatzeko tresnak garatzeko sistematika mugatua delako.
- Hori guztia dela eta, beharrezkoa da kudeaketa eta emaitzak etengabe hobetzeko eta berritzeko sistematika bat txertatzea, antolamendurako ahaleginak optimizatzeko zein erakunde aurreratuekin esperientziak trukatzeko.


Esku-hartzearen deskribapena

- Kudeaketari eta kalitateari dagokienez **zuzendariak, kudeatzaileak eta profesionalak gaitzeko** programa.
- **Kudeaketa aurreratuko eredu (KAE)** ezartzea erakunde guztietan zein eskatzen duten asistentzia kudeatzeko zerbitzuetan eta/edo unitateetan edo Osasunbidean inpaktu handiagoa dutenetan.
- **Prozesuen araberako kudeaketa** progresiboki ezartzea erakunde eta zerbitzuetan, honako hauekin hasita: asistentzia-zirkuituekin, zerbitzu nagusietako ISO egiaztagiriekin, eta prebalentzia edo inpaktu handiko patologietarako zerbitzu bakoitzeko bide klinikoekin.
- **Ikerkuntzako/berrikuntzako proiektuak** garatzea garrantzi bereziko arloetan (kronikoak, kudeaketa klinikoak, pertsonen kudeaketa...).

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Kalitatea eta kudeaketa	Erakundearen kudeaketarako prestakuntza egiaztatua duten pertsonen kopurua	EE	> 400
	Osasunbideako zuzendaritzen/kudeatzailetzen kudeaketa aurreratuko ereduaren bidez egindako urteko ebaluazioa	%0	%100
Prozesuen araberako kudeaketa	ISO egiaztagiria duten laguntza-zerbitzuak	3	15
	Gutxienez bide kliniko bat ezarrita duten zerbitzu klinikoaren ehunekoa	< %4	> %70
	Prozesuen mapa eta makroprozesuen deskribapena kudeatzailetza guztietan	0	6
Ikerketa	Ikerketa-proiektuak egitea garrantzi handia duten arloetan	0	3

c.2 PROFESIONALEN, PAZIENTEEN ETA HERRITARREN EBOLUZIOAN AURRERA EGITEA



Printzipio nagusiak

- Informazio-sistemek eboluzionatzen jarraitu behar dute definitutako gainerako ildo estrategikoen garapenari laguntzeko; bi norabidetan eboluzionatu behar dute:
 - Informazio-iturriak konektatzea (klinikoa/asistentziakoa/ekonomikoa/administratiboa...) laguntza jasotzen duen pertsona bakoitzaren inguruan, hau da, azterketa egiteko eta erabakiak hartzeko aukera ematen duen informazio indibidualizatuarekin.
 - Informazio-sistema berriak garatzea, bereziki erakundearen kudeaketa-gaitasuna hobetzera bideratuta. Adibidez: ebaluazio-sistemak, monitorizazioa, eta abar.
- Gainera, informazio-sistema adituak garatzen jarraitu behar dugu, erabaki klinikoak hartzen eta pazienteen datu klinikoak erregistratzen lagun dezaten.
- Halaber, informazio-sistema berriak garatu behar dira pazienteen aktibazioa eta ahalduzkoa errazteko, baita herritarren eta osasun-sistemaren arteko komunikazioa ahalbidetzeko ere.
- Informazio-sistemak kalitate eta fidagarritasun handiko datuz hornitu behar dira. Era berean, ematen duten informazioa erakunde osoarentzat izan behar da, eta aukera eman behar du informazio-sistemaren ikuspegi orokorra, bateratua eta parametrizatua eragiteko, baita prozedurak estandarizatzeko ere.
- Osasuneko informazio-sistemek, bestalde, aukera eman behar dute informazioa kalitate handiz eta etekina ateraz ustiatzeko, era autonomo eta azkarrean. Horrela, emankorrak izaten, arazoei aurre hartzen, erabakiak hartzen eta bikoiztasunak saihestuta lana errazten lagunduko dute.

Lehenetsitako esku hartzeko arloak

INFORMAZIOA SARTZEA

- Kalitateari buruzko datuak kudeatzea: **fitxategi nagusiak** sortzea.
- Osasunbidearen "Andia" **historia kliniko integratua** garatzea: gaur egun existitzen diren operazio-sistemak integratzea.
- **Minbiziaren erregistroa** operazio-sistemekin integratzea.
- **Denboraren mendeko larrialdien erregistroa** operazio-sistemekin integratzea.
- Kanpoko kontsultak eta larrialdiak **kodetzea**.


INFORMAZIOA USTIATZEA

- Erakundearen **emaitzak ebaluatzeko** programa, ustiapen-sistemen eta aginte-taulen mailan zein kontabilitate analitikoko programarako.
- **Osasun karpeta pertsonala** garatzea: Proiektu horren helburua espazio digital pertsonal bat sortzea da, ingurune teknologiko seguru batean, herritarren esku jarriko dena haien osasunari buruzko informazioa eskura dezaten. Halaber, aukera ematen du izapide elektronikoak egiteko eta osasun-arloko profesionalekin harremanetan jartzeko kanal segurua da, hala ezartzen den kasuetan.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Kronikoak	Paziente kronikoak tratatzeko estrategian azaldutako prozesuetan/profiletan garatutako aginte-taulen (AT) kopurua	1	7
	Paziente kronikoak tratatzeko estrategian azaldutako prozesuetan/profiletan garatutako kontrol-panelen (KP) kopurua	3	7
	Paziente kronikoei laguntza emateko ezarritako eta informazio-sistemetan sartutako eskakizunen ehunekoa	%0	%95
Arintasuna	Eskaeren eta emaitzen kudeatzaileak (EEK) kudeatutako prestazioen ehunekoa	%0	> %98
Agintzeko laguntza	Informazio-sisteman SAPE sistema duten profesional klinikoaren ehunekoa	%0	%100
Kontabilitate analitikoak	Zentroen eta zerbitzuen araberako kontabilitate analitikoaren tresnaren ehunekoa	hasita	> %90
Kodetzea	Larrialdien eta kontsulten kodetzearen ehunekoa	EE	> %80
	Operazio-sistema guztietan bateratutako alergien kodetzearen ehunekoa	%0	> %80
Herritarrak	Osasun karpeta pertsonalean alta eskatu duten herritarren ehunekoa	%0	> %10

c.3 BALIABIDEAK MODU EZIN HOBEAN ERABILTZEA OSASUN UNIBERTSALA BERMATZEKO



Printzipio nagusiak

- Materialak, sendagaiak, ekipamenduak eta zerbitzuak hautatzeko eta erosteko arrazionaltasunak eta eraginkortasunak funtsezko lan-ildo konplexua osatzen dute. Egokitasuna, aukera, segurtasuna, kalitatea eta, hala badagokio, mantentze-lanak ebaluatzeaz gain, kostua erabakigarria da hautaketarako; izan ere, Osasunbidearen aurrekontuaren heren bat da. Erosketen kudeaketa zentralizatuak aukera ematen du irizpide bateratuak ezartzeko eta erosketa-kostua nabarmen murrizteko.
- Halaber, sendagai generikoak eta bioantzekoak hautatzeak aukera ematen du segurtasuna hobetzeko eta antzeko tratamenduen kostua nabarmen txikitzeko.
- Nafarroako osasun-sistema hobetu daiteke zenbait asistentzia-jarduera garatzeari dagokionez, zentzu bikoitzean:
 - ... Zenbait prozesuk ebidentzia zientifikoak emandako adierazpen-tasa baino handiagoa dute, edo sektoreak aitortutako jardunbide egokiarena baino handiagoa.
 - ... Kostu handiko prozesuak daude, eta horiek optimiza daitezkeela uste da.
- Testuinguru horretan, Osasunbideak ildo estrategiko bat garatu nahi du, deskribatutako egoera bi helbururekin hobetzeko: kalitate eta segurtasun klinikoa hobetzea eta kudeaketa hobeak eragindako efizientzia hobetzea.
- Osasun-kostuak zuzenean lotuta daude erabaki klinikoekin. Hortaz, berrinbertsioko politikak egitea planteatu behar dugu. Hau da, balio kliniko txikiko (eraginkortasun klinikorik gabekoak, kostu efektiborik ez dutenak edo erabilgarri dauden batzuekin alderatuta eraginkortasun edo efizientzia marjinala edo txikia dutenak) sendagaiak, gailuak, tresnak edo prozedurak partzialki edo erabat finantzatzeari uzteko prozesu bat, balio kliniko handikoak sustatzen diren bitartean: askatutako baliabideak azken horiek finantzatzeko erabiltzen dira.
- Elkarte zientifikoek proba diagnostikoetako edo ohiko tratamenduetako zerrendak garatu dituzte haien espezialitateetan, eta horien adierazpena berriz ebaluatu beharko litzateke; izan ere, balio klinikorik gabeko adierazpenak ("ez egin" gomendio izenekoak) egiteko baliabide ugari erabili behar dituzte.

Lehenetsitako esku hartzeko arloak:

- Materialen eta sendagaien **erosketa zentralizatuak** bultzatzea.
- **Esku-hartze klinikoaren eraginkortasuna** hobetzea.
 - ... **Kontu handieneko asistentzia-prozesuak** aztertzea: prozesuan hobetu daitezkeen arloak berrikustea eta identifikatzea.
 - ... Zenbait prozesuk ebidentzia zientifikoak emandako **adierazpen-tasa** baino handiagoa dute, edo sektoreak aitortutako jardunbide egokiarena baino handiagoa; identifikatu behar dira.
 - ... Kudeaketa klinikoko itunetan "**EZ EGIN**" gomendio-zerbitzuak txertatzea.

... **Ospitaleratze-eraginkortasuna**, batez besteko egonaldia ospitale mota desberdinetako estandarretara egokituz, eta, kirurgia-operazioetan, ahal den kasu guztietan kirurgia ambulatorioa eginez.

... **Agindu farmakologikoaren eraginkortasuna**.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Erosketa zentralizatuak	Osasunbidean erosketa zentralizatuaren bidez egiten diren materialen erosketen ehunekoa	%23	> %85
	Osasunbidean erosketa zentralizatuaren bidez egiten diren farmakoen erosketen ehunekoa	%2	> %85
Jarduketan eraginkortasuna	Kirurgia-ambulatorizazioaren tasa	%35	> %50
	Egokitutako batez besteko egonaldiaren indizea (IEMA)	> 1	< 1
	Altarako planifikazio goiztiarra duten pazienteen ehunekoa	%31	%98
Egokitzapena	"Ez egin" adierazlea duten zerbitzuekin egindako kudeaketa-itunen ehunekoa	0	%90
Farmazia	SISADOAn (balio terapeutiko txikiko botikak) gastutako zenbatekoa murriztea	771.380 €	385.000 €
	Botika bioantzekoen erabilera erlatiboa handitzea	%15	> %50

D

PROFESIONALEN INPLIKAZIOA ETA GOGOBETETZEA HOBETZEA

d.1 LAGUNTZAREN KALITATEA HOBETZEKO PRESTAKUNTZA DUTEN PROFESIONALAK

HERRITARREN OSASUNA HOBETZEA	PAZIENTEEN ZAINKETAK ETA ESPERIENZIA HOBETZEA	ERAGINKOR-TASUN HANDIAGOA	PROFESIONALEN INPLIKAZIO HANDIAGOA
	■	■	■

Printzipio nagusiak

- Profesionalak dira zainketarik onenak emateko pazienteekin zuzenean edo zeharka lan egiten duten pertsona guztiak.
- Nafarroako osasun-sisteman egin nahi diren aldaketek funtzio eta rol profesional berriak garatzea eskatzen dute, gaur egungo prestazio-eredua pazienteen beharretara egokitzeko.
- Bereziki, rol eta funtzio berriak definitzeko beharra detektatu da erizaintzako profesionalei eta onarpen-arloko administrazio-langileei dagokienez.

- Profesionalak prestatzeak osasun-laguntzaren kalitatea, segurtasuna eta eragin-kortasuna hobetzen lagunduko luke.
- Profil berriek prestakuntza espezifikoa eskatzen dute, ezagutzak eta abileziak hartzea eta horiek etengabe eguneratzen direla bermatzen duena.
- Gaitasunen araberako prestakuntza lortzeko profesionalen irakaskuntza-ibilbideak "prestakuntza-pasaporte" definitzen du. Horrek honako berme hau irudikatzen du: profil profesional bakoitzerako prestakuntza egokia eskaini eta jasotzen da.
- Osasun-ikerikuntza funtsezko elementua da osasun-sistemak zein profesionalak aurrera egin dezaten; izan ere, berrikuntza eta kalitatea indartzen ditu, ezagutza sustatzen du eta erakundearen prestigioa eta pazienteen konfiantza handitzen ditu.

Lehenetsitako esku hartzeko arloak


- Osasun planetik eta, modu espezifikoan, kronikoen estrategiatik sortutako **profil eta funtzio berrien mapa** definitzea (kasuak kudeatzeko erizaina, erizain aholkularia eta abar).
- Prestakuntza-jardueretarako **aurrekontu** handiagoa erabiltzea.
- Profil eta funtzio berrientzako "**prestakuntza-pasaporte**" definitzea.
- Osasunbidean behar diren funtzio eta profil berrien garapenera egokitutako **prestakuntza-plan** bat egitea.
- Zentro bakoitzeko **zenbait urtetarako prestakuntza-plana**.
- Zentro bakoitzeko **ikerikuntza-plana**.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Prestakuntza /Gaikuntza	Prestakuntza-pasaportearen definizioa duten profil profesionalen ehunekoa	%0	> %70
	Prestakuntza-pasaportearen araberako prestakuntza espezifikoa jaso duten profil berrien profesionalak	%0	> %90
	Prestakuntzaren dimentsioarekiko gogobetetzearen puntuazio globala (Laneko giroari buruzko inkesta-LGI)	3,6*	> 6
	Prestakuntza- eta ikaskuntza-aukerek in lotutako itemean 7 puntu edo gehiagoko gogobetetzea duten pertsonen ehunekoa	%17	> %30
Aurrekontua	Prestakuntzara bideratutako aurrekontua	46.700 €	>350.000 €
Ikerketa	2015-2019 bosturtekoan, Osasunbideako langileek indexatutako aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikuluen kopurua	1.664	> 2.500

*2016ko datuak, ez baikeneukan lehenagoko daturik.

d.2 PAZIENTEEKIKO INPLIKAZIOA DUTEN TALDE PROFESIONALAK



Printzipio nagusiak

- Osasunbideako burua den taldearen helburua da profesional GUZTIEKIN egin behar den eraldaketa egitea, eta, horregatik, horien inplikazioa, lidergoa eta gogobetetzea hobetzera bideratutako esku hartzeko hainbat ildo garatu nahi ditu.
- Ildo hori garatuta, erakundearen helburua honako hau da: erakundearen helburuak eta estrategia lerrokatzea profesionalak egunero egiten dituzten ekintzekin eta jarduerekin.
- Halaber, profesionalak erakundearen estrategia garatzeko parte hartzea eta inplikatzeari sustatu nahi da.
- Arduradun guztientzako lidergo eraldatzaileko sistematika definitu, garatu eta hobetu nahi da.
- Osasun-arloko esku-hartzeen kalitatea eta segurtasuna hobetzeak profesionalen gogobetetzea handitzen duela dioen ebidentzia argia da.

Lehenetsitako esku hartzeko arloak


- Laneko giroari buruzko aldizkako **inkestak** egitea, profesionalen gogobetetzearen dimentsioetan hobetzeko arloak identifikatzeko eta hartutako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko.
- **Laneko giroa hobetzeko planak**, Laneko Giroari buruzko inkestan oinarrituta.
- **Lana egokitzea**: lan-kargari eta lanpostuak egokitzeari buruzko azterketak.
- **Lan-baldintzak**: enpleguaren kalitatea hobetzeko plana, itun soziala eta lan-osasuna sustatzea.
- **Enpleguaren egonkortasuna**: urtero lan-eskaintza publikoak eginen badira ere, egungo birjartze-tasak enplegu finkoa sortzeko gaitasuna mugatzen du. Muga hori gainditzeko, bitartekoen plazen kopurua handituko da (gordetakoak eta hutsak), eta horrek enplegua egonkortzea ekarriko du LEParen deialdira arte.
- **Barne-komunikazioko plana**.
- **Aitorpena**: jarduerak edo emaitza bikainak aitortzeko irizpide eta jarduketak ezartzea.
- **Lidergoa garatzea**: Lidergo-eredu bat definitzea, buruak gaitzeko plan bat egitea eta erakundeko lidergoa ebaluatzea.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Gogobetetzea	Profesionalen gogobetetze globalaren puntuazioa hobetzea (Laneko giroari buruzko inkesta-LGI)	6,4*	> 7
Parte-hartzea	Parte-hartzearen dimentsioan profesionalen gogobetetzearen puntuazioa hobetzea (LGI)	5*	> 7
Bezeroarentzako orientazioa	Bezeroarentzako orientazioaren dimentsioan profesionalen gogobetetzearen puntuazioa hobetzea (LGI)	5,5*	> 7
Komunikazioa	Erakundearen komunikazioaren dimentsioan profesionalen gogobetetzearen puntuazioa hobetzea (LGI)	5,4*	> 7
Aitorpena	Aitorpenaren dimentsioan profesionalen gogobetetzearen puntuazioa hobetzea (LGI)	5,6*	> 6
Lidergoa	Lidergoaren arloan prestatutako erakundeko pertsonak	EE	> 400
	Lidergoaren ebaluazioa duten pertsonak	EE	> 400
Enpleguaren kalitatea	Profesional finkoen ehunekoa	%58	> %65
	Lan-eskaintza publikoaren plazen kopurua (metatutakoak)	130	> 1.400
	Enplegu egonkorreko gastua (etorkizuneko LEPetarako gordetako plazak eta plaza hutsak)	53 milioi €	>75 m €

*2016ko datuak, ez baikeneukan lehenagoko daturik.

d.3 PROFESIONALEK KUDEAKETAN PARTE HARTZEA LAGUNTZA HOBETZEKO



Printzipio nagusiak

- Osasun-arloko profesional guztiak behar ditugu: ez bakarrik jarduera kliniko garatzeko, baita kudeaketan gehiago parte hartzea eta inplikatzea lortzeko ere.
- Osasun-arloko jarduera batzuk asistentzia-jarduera zuzenetik baino ezin dira hobetu; hauexek dira, besteak beste: kalitate teknikoa hobetzea, ebidentzian oina-

rritutako agindu arrazionala, etengabeko hobetzea eta asistentzia-prozesuak integratzea, jarduketan bizkortasuna, asistentzia-zirkuituak optimizatzea, lehenespen klinikoa, eta pazienteen informazioa eta gaikuntza.

- Asistentzia kudeatzeko eredua garatzea eta abiaraztea esku hartzeko lehentasuneko ildo da, osasun-arloko jarduera kudeatzeko eta antolatzeko jardueretan lidergo kliniko handiagoa lortzeko.
- Behar-beharrezkoa da profesionalak parte hartzea estrategia korporatiboak abiarazteko prozesuan. Kudeaketa-ituna estrategia korporatiboen zentroen, zerbitzuen eta unitateen mailan hedatzeko tresna da, eta funtsezkoa da Osasunbidearen estrategia hedatzeko.

Lehenetsitako esku hartzeko arloak


- **Programa-kontratua** urtero ezartzea, eta han zentroen kudeatzailletza guztiak sartzea, strategiaren garapenarekiko modu koherentean.
- **Helburuen ituna** Programa-Kontratuen lehentasunekiko koherenteak diren zentrokein eta zerbitzuekin.
- **Asistentzia kudeatzeko eredua** profesional guztien parte-hartzearen bidez definitzea.
- Asistentzia kudeatzeko unitateak garatzea.

Adierazleak eta emaitzen helburuak

ILDO ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	2015	2020RAKO HELBURUA
Programa-kontratua	Kudeatzailletzekin egindako urteko programa-kontratuak	0	%100
Kudeaketa-itunak	Zerbitzuekin batera urtero ebaluatutako helburuen arabera kudeaketa-itunak	EE	%100
Asistentziaren kudeaketa	Osasunbidean asistentzia kudeatzeko unitateak hedatzea	0	≥ 10

"OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ" ESTRATEGIAREN ILDO OSAGARRIEN DESKRIBAPENA ETA LEHENESPENA

Lehenetsitako 12 ildoek strategiaren ardatz nagusia eratzen badute ere, hori agintetaren bidez garatutako jarduketa batzuek osatzen dute, erantsitako irudiaren logikari jarraituz.




Misioa, Ikuspegia eta Balioak dokumentuan oinarrituta, ardatz estrategikoak identifikatu dira, eta honela definitu dira:

- 1. ardatza: **Autonomia-erkidegoko osasuna sustatzea eta osasun-arloko desparekotasunak murriztea.**
- 2. ardatza: **Sistema jasangarri eta kalitatezkoa bermatzea, biztanleen beharrei erantzungo diena.**
- 3. ardatza: **Erantzukizuna eta eragin soziala.**

Ardatz horiek gauzatzeko, helburu estrategikoak definitu dira, horiek ildo estrategikoak zehazten dituzte, eta azken horiek garatu beharreko dimentsioak definitzen dituzte eskemaren garapena osatzeko.

Egin beharreko lanaren aurrean, eta ahaleginen arreta jarduketa garrantzitsuenetan jartzeko helburuarekin, lehenespen-jarduera parte-hartzailea egin zen. Ulertzen laguntzeko kolore-kode bat erabili da, eta horrek puntuazioa adierazten du helburu, ildo edo dimentsio bakoitzaren garrantziaren arabera.



Hauxe da ardatz estrategikoen arabera esku-hartzeak identifikatzearen emaitza:

1. ARDATZA. KOMUNITATEKO OSASUNA SUSTATzea ETA OSASUN-ARLOKO DESPAREKOTASUNAK MURRIZTEA

HELBURUA	ILDO ESTRATEGIKOAK	DIMENTSIOAK
PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA BERMATZEA	Osasunaren babesa	<i>Osasunaren babesa</i>
	Prebentzioa eta populazioaren detekzio goiztiarra	Prebentzioa eta detekzio goiztiarra
	Desgaitasunaren prebentzioa eta autonomiaren sustapena	Desgaitasuna prebenitzea
		Autonomia sustatzea
Osasuna sustatzea	Osasuna sustatzea	
OSASUNARI ETA EKITATEAREI BURUZKO SEKTORE ANITZEKO GOBERNUAREN POLITIKAK	<i>Osasuna politika guztietan eta ekitatea</i>	<i>Departamentu arteko estrategiak</i>
		<i>Sustapen eta esku-hartze komunitarioa</i>
		<i>Lehentasunezko laguntza</i>

Oharra: - Letra etzanez nagusiki Osasun Departamentuak garatutako alderdiak adierazi dira.

Edukia

Osasuna babestea: *Osasunaren babesa bermatzea, bai norberaren ingurunean bai ingurune sozialean. Halaber, ura, kontsumoa, jangaiak, gaixotasun infekziosoen transmisioaren aurkako babesa edo, oro har, substantzia kimiko arriskutsu edo kutsakorrekiko esposizioaren babesa bermatzea.*

Prebentzioa eta detekzio goiztiarra: Ongizatea susta dezaketen eta gaixotasunaren arriskuak murrizt ditzaketen neurriak eta teknikak aurretiaz garatzea.

Desgaitasuna prebenitzea: Gaixotasunaren intzidentzia, prebalentzia eta intentsitatea murriztea, defizitek edo arrisku-faktoreek alterazio fisikoak, mentalak edo sentso-rialak eta desgaitasuna sortzea eragoztera bideratutako neurrien bidez.

Autonomia sustatzea: Pertsonen gaitasunak eta trebetasunak modu aktiboan bultzatzea haien autonomia eta bizitzaren pertzepzioa sustatzeko.

Osasuna sustatzea: Pertsonen kontrol-gaitasuna sustatzea osasuna mantendu eta hobetzeko.

Departamentuarteko estrategiak: *Gobernuaren eta instituzioen departamentu eta erakunde guztiek osasunaren egoera hobetzen lagunduko duten estrategiak eta jarduketak koordinatzea.*

Sustapen eta esku-hartze komunitarioa: *Osasuna sustatzen eta hobetzen lagunduko duten sareko esku-hartze komunitarioko estrategiak eta ebaluazio-elementuak gehitzea.*

Lehentasunezko laguntza: Gizatalde eta pertsona guztien sarbiderako eta tratamendurako berdintasuna bermatzea, osasunaren erabakitzaile sozialetan jardunez. Halaber, lehentasunez bermatu behar da gizatalde ahulen sarbiderako eta tratamendurako berdintasuna osasun-arloko desperekotasunak murrizteko.

2. ARDATZA. SISTEMA JASANGARRI ETA KALITATEZKOA BERMATzea, BIZTANLEEN BEHARREI ERANTZUNGO DIENA

HELBURUA	ILDO ESTRATEGIKOAK	DIMENTSIOAK
OSASUN LAGUNTZA INTEGRAL, INTEGRATU ETA ERAGINKORRA ESKAINTZEA	Zerbitzu egoki eta irisgarriak	Zerbitzuen eskaintza
		Irisgarritasuna
	Zerbitzuak modu eraginkor eta seguruan eskaintzea	Estrategia asistentzialak
		Egokitzapena (ebidentzian oinarritutako medikuntza)
		Segurtasuna
		Prozesu azkarrak eta eraginkorrak
		Teknologia egokia eta nahikoa izatea
		Kooperazioa/egiturak integratzea
		Jarraitutasuna
		Laguntza soziosanitarioa
ZERBITZUAK HERRITARRARI ZUZENTZEA ETA HORREN AUTONOMIA SUSTATZEA	Herritarrek osasun-laguntzan dituzten eskubideak eta betebeharrak	Unibertsaltasuna
		Herritarren eskubideak
	Gaikuntza eta autonomia bermatzea	Informazioa eta hezkuntza
		Erabakiak hartzeko autonomia
		Pazienteak eta zaintzaileak gaitzea
		Pazienteen parte-hartzea
	Tratu egokia eta pertsonalizatua	Errespetua eta tratu ona
		Konfidentzialtasuna
		Erosotasuna
JASANGARRITASUN EKONOMIKOA	Nahikotasun finantzarioa	Finantziario nahikoa izatea
		Diru-sarrerak maximizatzea
		Inbertitzeko gaitasuna
	Kostu egokiak	Kostu profesionalak
		Erosketa eraginkorrak (itunak, farmazia, ekipamenduak, lanak, erosketak)
	Baliabideen antolamendua	Baliabideak planifikatzea eta optimizatzea
	Jardueren eraginkortasuna eta bizkortasuna	Prozesuen eraginkortasuna
		Instalazioen eta ekipamenduen errendimendua
		Instalazio eta teknologia egoki eta seguruak
		Profesionalen eraginkortasuna

HELBURUA	ILDO ESTRATEGIKOAK	DIMENTSIOAK
BERRIKUNTZA, EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA	Aldaketa planifikatzea	Plan estrategikoak eta hobetzeko planak
		Araudia eguneratzea eta betetzea
	Informazio- eta ebaluazio-sistemak	Informazio-sistemak
		Emaitzekiko orientazioa
	Ikerketa, garapena eta berrikuntza	Ikerketa
		Eredu asistentzial berriak
		Aliantzak
		Ezagutzaren kudeaketa
	Etengabeko hobekuntza	Prozesuen araberako kudeaketa
		Gobernamendu klinikoak
Etengabeko hobekuntza		
INPLIKATUTAKO PROFESIONALAK	Lidergoa	Lidergoa
	Parte-hartzea eta lan-baldintza egokiak	Lanaren egokitasuna
		Lan-baldintzak
		Antolaketa eraginkorra
	Garapen profesionala eta aintzatespena	Gaikuntza
		Aintzatespena

Edukia

Zerbitzuen eskaintza: Zerbitzuen eta prestazioen zerrenda eguneratuta eta biztanleen beharrei erantzuteko moduan egokitua izatea.

Irisingarritasuna: Zerbitzuetarako irisingarritasuna bermatzea, osasunerako arriskuak eta pazienteen ziurgabetasuna minimizatuz.

Estrategia asistentzialak: Paziente kronikoei eta Osasun Planean lehenetsitako patologiak dituzten pertsoneri laguntza emateko estrategiak eta planak garatzea.

Egokitzapena (ebidentzian oinarritutako medikuntza): Jarduketa klinikoak pazienteen beharretara egokitzen direla eta sistemaren eraginkortasuna bermatzea.

Segurtasuna: Asistentzia-prozesuak garatzea jarduketan segurtasuna maximizatuz eta konplikazioak eta kontrako efektuak saihestuz.

Prozesu bizkorak eta eraginkorrak: Prozesu klinikoaren eraginkortasuna bermatzea etengabe osasun-arloko emaitzak eta asistentzia-prozesuen kalitatea hobetzeko.

Teknologia egokia eta nahikoa izatea: Beharrezko teknologia izatea eta modu egokian erabiltzea prozesuen emaitzak hobetzeko.

Kooperazioa/egitura integratzea: Zerbitzuak eta erakundeak integratzea eta koordinatzea asistentziaren eraginkortasuna hobetzeko.

- Jarraitutasuna:** Pazienteei asistentzia-mailen arteko zainketak bermatzea.
- Laguntza soziosanitarioa:** Mendekotasun-arrisku edo -egoeran dauden gizataldeen osasun-, gizarte- eta hezkuntza-asistentzia koordinatzea erabiltzaileen autonomia handitzeko, mugak arintzeko eta birgizarteratzen laguntzeko.
- Unibertsaltasuna:** Eduki homogeneoa eta finantziario publikoa duen osasun-arloko babes-ekintza herritar guztientzako berdintasun-baldintzetan hedatzea.
- Herritarren eskubideak:** Herritarren eskubideak bermatzea osasun-arloko dimentsio guztietan eta zerbitzuen kalitate integralean.
- Informazioa eta hezkuntza:** Pazienteei osasun-zerbitzuei eta osasun-egoerari buruzko informazio argia eta ulergarria behar den garaian bermatzea, eta jarduketetan osasunaren hezkuntza sustatzea.
- Erabakien autonomia:** Pazientea gaitzea, informazioa ematea eta haren autonomia sustatzea haren osasunari buruzko erabakiak hartzeko orduan.
- Pazienteak eta zaintzaileak gaitzea:** Pazienteak eta zaintzaileak modu jarraituan gaitzea osasuna modu autonomoan zaintzen laguntzeko.
- Pazienteen parte-hartzea:** Pazienteen parte-hartzerako mekanismoak ezartzea eta bermatzea, zerbitzuak eta prozesuak diseinatzean eta erabiltzean beharrak, itxaropenak eta lehentasunak kontuan hartzea sustatzeko.
- Errespetua eta tratu ona:** Errespetua eta tratu ona bermatzea, pazienteen eta herritarren itxaropenak asetzeko.
- Konfidentzialtasuna:** Osasun-arloko informazioaren konfidentzialtasuna eta intimitatea errespetatzen direla bermatzea.
- Erosotasuna:** Instalazioen irisgarritasuna eta erosotasuna eta zerbitzu ez-asistentzialen kalitatea bermatzea.
- Finantziario nahikoa izatea:** Helburuak lortzeko behar den finantziarioa bermatzea.
- Diru-sarrerak maximizatzea:** Ahalik eta finantza-sarrera handienak lortzea.
- Inbertitzeko gaitasuna:** Teknologia eta instalazioak berritzeko behar den inbertitzeko gaitasuna izatea.
- Profesionalen kostuak:** Behar adina profesional egoki izatea, eta horien kostua jasagarritasun ekonomikora egokitzea.
- Erosketa eraginkorrak (kontzertuak, farmazia, ekipamenduak, lanak erosketak):** Zerbitzuak eta produktuak (materialak, zerbitzuak, farmazia, teknologia, kontzertuak) modu eraginkorrean erosteko mekanismoak gehitzea.
- Baliabideak planifikatzea eta optimizatzea:** Zerbitzuen prestazioa eta osasun-sistemaren jasagarritasuna optimizatzeke beharrezkoak diren baliabideak planifikatzea.
- Prozesuen eraginkortasuna:** Asistentzia-baliabideen eta diagnostikoen eraginkortasuna, errendimendua eta produktibitatea.
- Instalazioen eta ekipamenduen errendimendua:** Instalazioen eta ekipamenduen errendimendua maximizatzea.
- Instalazio eta teknologia egoki eta seguruak:** Instalazioen eta ekipamenduen zuzkidura, erabilera eta mantentze-lan egokiak eta seguruak.
- Profesionalen eraginkortasuna:** Profesionalen jardun eraginkorra.

Plan estrategikoak eta hobetzeko planak: Erakundeetan planifikazio estrategikoa eta hobetzeko planak erabiltzea jarduketan koherentzia eta emaitzak etengabe hobetzen direla bermatzeko.

Eguneratzea eta araudia betetzea: Araudia betetzen dela eta beharretara egokitzen dela ziurtatzea.

Informazio-sistemak: Informazio klinikoa eta kudeaketari buruzkoa erabilgarri dagoela bermatzea profesionalen jarduna eta erabakiak hartzea errazteko.

Emaitzetarantz orientatzea: Objektuak eta emaitzak profesionalentzat erabilgarri daudela bermatzea.

Ikerkuntza: Jarduera klinikoak aurrera egin dezan eta hobetu dadin laguntzea aplikazio klinikoko ikerkuntza biomedikoaren bidez.

Eredu asistentzial berriak: Sistema eraldatzen lagunduko duten eredu asistentzialak garatzea.

Aliantzak: Osasunaren proiektuari ekarpenak egiten dizkieten gizarte-eragileekin, elkarteekin, enpresekin, profesionalekin edo erakundeekin bi aldeentzat onuragarriak diren akordioak egitea.

Ezagutza kudeatzea: Ezagutza klinikoa eta kudeaketaren arlokoa jasotzea, zabaltzea eta hobetzea.

Prozesuz prozesu eginiko kudeaketa: Emaitzak etengabe hobetuko dituen PDCA zikloetan (planifikatu-egin-egiaztatu-jardun) oinarritutako prozesuak sistematikoki kudeatzea.

Gobernamendu klinikoak: Parte-hartzean, erantzunkidetasunean eta prozesuen kudeaketan oinarritutako asistentzia-zerbitzuen kudeaketa-eredua garatzea.

Etengabeko hobekuntza: Kudeaketa eta emaitzak etengabe hobetzeko eta berritzeko sistematika erabiltzen hastea.

Lidergoa: Arduradun guztientzako lidergo eraldatzaileko sistematika definitu, garatu eta hobetzea.

Lana egokitzea: Prestakuntza egokia duten profesionalak izatea, eta horiek, halaber, lan-baliabide, lan-karga, lan-baldintza eta segurtasun-baldintza egokiak izatea, laneko giro positiboaz gain.

Lan baldintzak: Enpleguaren egonkortasuna, autonomia, erabakien gardentasuna eta aukera-berdintasuna bermatzea.

Antolaketa eraginkorra: Antolaketa bizkorra eta eraginkorra izatea, lanerako informazioa eta baliabideak bermatuko dituen. Era berean, lidergo motibatzailea izatea, bezeroengana bideratua, eta talde-lanean, parte-hartzean eta erantzukizunen eskuordetzean oinarritua.

Gaitzea: Profesionalak etengabe gaitzea eta trebatzea.

Aitorpena: Ordainsari egokiak eta garapen profesionalerako sistemak eta aitorpena.

3. ARDATZA. ERANTZUKIZUNA ETA ERAGIN SOZIALA

HELBURUA	ILDO ESTRATEGIKOAK	DIMENTSIOAK
ERAGIN SOZIALA	Aintzatespenari eta eragin sozialari ekarpena egitea	Aliantzak ingurunearekin
		Kanpoko irakaskuntza
		Aberastasuna sortzea
		Ezagutza zabaltzea
		Erakundeekin eta GKEekin lankidetzan aritzea
	Herritarrek atxikitzea	Herritarren parte-hartzea
		Kanpoko komunikazioa
	Ingurumen-jasangarritasuna	Hondakinen kudeaketa
		Energiaren kudeaketa

Edukia

Ingurunearekin aliantzak: Akordioak egitea elkarrekin, enprekin, profesionalekin edo erakundeekin, bi aldeentzat onuragarriak direnak eta osasunaren proiektuari ekarpenak egiten dizkiotenak.

Kanpo-irakaskuntza: Jarduera klinikoak aurrera egin dezaten eta hobetu dadin laguntzea etorkizuneko profesionalak prestatzearen bidez.

Aberastasuna sortzea: Aberastasuna sortzen laguntzea eta Nafarroako gizartearen ongizateari laguntzea enplegua sortuz, erakundeen ekimenetan lankidetzan arituz eta enpresa-sarearekin lankidetzan arituz.

Ezagutza zabaltzea: Jardun klinikoan edo kudeaketan egindako aurrerapena edo horiei buruzko ezagutzak zabaltzea, baita biztanleen osasunaren hezkuntzari laguntzen dioten irizpideak eta ezagutzak ere.

Erakundeekin eta GKEekin lankidetzan aritzea: Modu altruistan gizartearen ongizateari laguntzen dioten ekimenetan parte hartzea.

Herritarren parte-hartzea: Herritarrek eta haien ordezkariak parte hartzeko mekanismoak ezartzea eta bermatzea, zerbitzuak eta prozesuak diseinatzean eta erabiltzean beharrak, itxaropenak eta lehentasunak kontuan hartzea sustatzeko.

Kanpo-komunikazioa: Profesionalen eta erakundeen ezaugarriak eta lorpenak zabaltzea, biztanleek konfiantza handiagoa izan dezaten eta profesionalak sistemaren partaide direla senti dezaten.

Hondakinen kudeaketa: Hondakinak kudeatzeko eta birziklatzeko sustapena, ingurumen-arriskuak minimizatzeko eta jasangarritasuna lortzen laguntzeko.

Energiaren kudeaketa: Kontsumoen eraginkortasuna bermatzeko eta ingurumen-inpaktua minimizatzeko moduan kudeatzea energia.

Dimentsio horiek agente-taula osatzen dute.

Dimentsio bakoitzaren garapena lortzeko planak eta proiektuak 1. eranskinean sartu dira. Horren jarraipena egiteko, guk egindako programa informatiko bat daukagu (Prosalud), eta han ekintzak, arduradunak, datak eta jarraipenaren eta emaitzen adierazleak daude.

AGINTE- TAULAK

HELBURUA	ILDO ESTRATEGIKOAK	DIMENTSIOAK
PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA BERMATzea	Osasunaren babesa	<i>Osasunaren babesa</i>
	Prebentzioa eta populazioaren detekzio goiztiarra	Prebentzioa eta detekzio goiztiarra
	Desgaitasunaren prebentzioa eta autonomiaren sustapena	Desgaitasuna prebenitzea
	Osasuna sustatzea	Osasuna sustatzea
OSASUNARI ETA EKITATEAREI BURUZKO SEKTORE ANITZEKO GOBERNUAREN POLITIKAK	<i>Osasuna politika guztietan eta ekitatea</i>	<i>Departamentu arteko estrategiak</i>
		<i>Sustapen eta esku-hartze komunitarioa</i>
		Lehentasunezko laguntza
OSASUN LAGUNTZA INTEGRAL, INTEGRATU ETA ERAGINKORRA ESKAINTZEA	Zerbitzu egoki eta irisgarriak	Zerbitzuen eskaintza
	Zerbitzuak modu eraginkor eta seguruan eskaintzea	Irisgarritasuna
		Estrategia asistentzialak
		Egokitzapena (ebidenzian oinarritutako medikuntza)
		Segurtasuna
		Prozesu azkarrak eta eraginkorrak
		Teknologia egokia eta nahikoa izatea
		Kooperazioa/egiturak integratzea
		Jarraitutasuna
		Laguntza soziosanitarioa
ZERBITZUAK HERRITARRARI ZUZENTZEA ETA HORREN AUTONOMIA SUSTATZEA	Herritarrek osasun-laguntzan dituzten eskubideak eta betebeharrak	Unibertsaltasuna
		Herritarren eskubideak
	Gaikuntza eta autonomia bermatzea	Informazioa eta hezkuntza
		Erabakiak hartzeko autonomia
		Pazienteak eta zaintzaileak gaitzea
	Tratu egokia eta pertsonalizatua	Pazienteen parte-hartzea
Errespetua eta tratu ona		
Konfidentzialtasuna		
JASANGARRITASUN EKONOMIKOA	Nahikotasun finantzarioa	Finantziario nahikoa izatea
		Diru-sarrerak maximizatzea
		Inbertitzeko gaitasuna
	Kostu egokiak	Kostu profesionalak
		Erosketa eraginkorrak (itunak, farmazia, ekipamenduak, lanak, erosketak)
	Baliabideen antolamendua	Baliabideak planifikatzea eta optimizatzea
	Jardueren eraginkortasuna eta bizkortasuna	Prozesuen eraginkortasuna
Instalazioen eta ekipamenduen errendimendua		
Instalazio eta teknologia egoki eta seguruak		
BERRIKUNTZA, EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA	Aldaketa planifikatzea	Plan estrategikoak eta hobetzeko planak
		Araudia eguneratzea eta betetzea
	Informazio- eta ebaluazio-sistemak	Informazio-sistemak
		Emaitezko orientazioa
		Ikerketa, garapena eta berrikuntza
	Etengabeko hobekuntza	Ikerketa
		Eredu asistentzial berriak
		Aliantzak
		Ezagutzaren kudeaketa
		Prozesuen araberako kudeaketa
INPLIKATUTAKO PROFESIONALAK	Lidergoa	Lidergoa
		Lanaren egokitasuna
	Parte-hartzea eta lan-baldintza egokiak	Lan-baldintzak
Garapen profesionala eta aintzatespena		Antolaketa eraginkorra
ERAGIN SOZIALA	Aintzatespenari eta eragin sozialari ekarpena egitea	Gaikuntza
		Aintzatespena
		Aliantzak ingurunearekin
		Kanpoko irakaskuntza
		Aberastasuna sortzea
	Herritarrak atxikitzea	Ezagutza zabaltea
		Erakundeekin eta GKEekin lankidetzan aritzea
		Herritarren parte-hartzea
	Ingurumen-jasangarritasuna	Kanpoko komunikazioa
		Hondakinen kudeaketa
		Energiaren kudeaketa



PLANAK ETA PROIEKTUAK

Plan estrategikoko dimentsio guztien garapena lortzeko, plan eta proiektu espezifiko hauek egin behar dira:

DIMENTSIOAK	PLANAK / PROIEKTUAK
Osasunaren babesa	<i>Laneko osasunari eta laneko, ingurumeneko eta elikagaietako arriskuei buruzko programa</i>
Prebentzioa eta detekzio goiztiarra	Koloneko minbiziaren programa, bularreko minbiziaren programa, metabolo-patien, diabetesaren eta hipertentsioaren detekzioa
Desgaitasuna prebenitzea	Hobekuntza funtzionalaren plana, esku-hartze goiztiarra lehen agerraldi psikotikoetan
Autonomia sustatzea	<i>Zahartze aktiboa</i>
Osasuna sustatzea	<i>Haurtzaroko eta Nerabezaroko Departamentu arteko Plana</i> , herritarrak gaitzea autozaintan eta osasunean, jarduera fisikoa sustatzeko programa
Departamentu arteko estrategiak	<i>Sektore arteko osasun-politikak</i>
Sustapen eta esku-hartze komunitarioa	<i>Osasun komunitarioaren behatokia, sustapen eta esku-hartze komunitarioaren estrategia sarean</i>
Lehentasunezko laguntza	<i>Gizatalde ahulentzako lehentasunezko laguntza</i>
Zerbitzuen eskaintza	Prestazio eta zerbitzuen zorroaren ikerketa, Osasunbideko prestazio eta zerbitzuen zorroaren Foru Dekretua
Irisgarritasuna	Lehentasun klinikoaren araberako itzarote-zerrenden estrategia eta programa, osasun-garraioa, Landa Eremuko Arreta Plana
Estrategia asistentzialak	Denboraren mendeko larrialdiak, zainketa aringarriak, mina, minbizia, osasun mentala, dementsia eta gaitz neurodegeneratiboa, kardiozerebroaskularra, diabetesa, arnas nahasmenduak, patologia anitzeko pazienteak, gaixotasun arraroak
Egokitzapena (ebidentzia oinarritutako medikuntza)	Farmaziaren kudeaketa, hitzartutako protokoloak eta patologia nagusien bide klinikoak
Segurtasuna	Segurtasun-estrategia
Prozesu azkarrak eta eraginkorrak	Bereizmen handiko zirkuituak, bide klinikoak, laguntza ez presentziala, asistentziakoak ez diren protokoloak, kirurgia handi ambulatorioa, onartutakoen hobekuntza, ospitalez kanpoko larrialdiak
Teknologia egokia eta nahikoa izatea	Berrikuntza teknologikoaren plana, telemedikuntza
Kooperazioa/egiturak integratzea	Osasun-arloen diseinua, Lehen mailako laguntzaren eta espezializatuaren arteko koordinazioa, osasun mentalaren koordinazioa

DIMENTSIOAK	PLANAK / PROIEKTUAK
Jarraitutasuna	Laguntza kliniko integratua (LMA, AE, soziosanitarioa)
Laguntza soziosanitarioa	Laguntza soziosanitarioaren plana
Unibertsaltasuna	Botiken koordainketa arautzea, Nafarroako Unibertsitate Klinikako langileentzako osasun-laguntza
Herritarren eskubideak	<i>Ahalduntze eta parte-hartze sozialaren arauak, Euskararen Legea betetzea, Sexu eta Ugalketa Osasunaren Dekretua</i>
Informazioa eta hezkuntza	Informazioa hobetzeko plana, pazientearen hezkuntza, osasun-karpeta pertsonala, Osasun Batzordea
Erabakiak hartzeko autonomia	Baimen informatua, informazioa
Pazienteak eta zaintzaileak gaitzea	<i>Paziente eta Zaintzaileen Eskola</i>
Pazienteen parte-hartzea	Gogobetetzeari buruzko galdetegiak, prozesuen diseinuko parte-hartzea, talde fokalak, paziente aditua, pazienteari laguntza emateko unitateak
Errespetua eta tratu ona	Pazienteen beharrak eta espektatibak identifikatzea, humanizazio-plana
Konfidentziasuna	Segurtasun informatikoa, informazio-espazioak, humanizazio-plana
Erosotasuna	Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeak berreskuratzea, humanizazio-plana
Finantziazio nahikoa izatea	Finantziazioa helburuetara orientatzea
Diru-sarrerak maximizatzea	Profesionalentzako informazioa, zerbitzu fakturagarrien identifikazioa
Inbertitzeko gaitasuna	Inbertsio Plana
Kostu profesionalak	Txandak eta produktibitatea berrikustea
Erosketa eraginkorrak	Itun-politika, osasun-garraioa, erosketa zentralizatuak
Baliabideak planifikatzea eta optimizatzea	Aurrekontu prospektiboak, <i>osasun-mapa eguneratzea</i> , baliabide asistentzialen antolamendua (zentroak, ebakuntza-gelak, lehen mailako laguntza, profesionalen dotazioa), laborategien plana, lehen mailako laguntzako plana, osasun-arloak eta eskualdeen araberako banaketa garatzea, hobekuntza funtzionalaren plana
Prozesuen eraginkortasuna	Prozesuen anbulatoriazioa, eguneko ospitaleak, etxeko ospitalizazioa, bereizmen handiko kontsultak, sendagaien erabilera arrazionala, lehen mailako laguntzaren erabakigarritasuna
Instalazioen eta ekipamenduen errendimendua	Instalazioen eta hobekuntza-planen errendimenduen monitorizazioa, arratsaldeko jarduerak
Instalazio eta teknologia egoki eta seguruak	Teknologien, proben, protesien eta osasun-materialaren erabilera arrazionala, plan funtzionalak
Profesionalen eraginkortasuna	Plantillen neurria eta egokitasuna ezartzea, profesionalen errendimendua, rol profesional berriak
Plan estrategikoak eta hobetzeko planak	Plan Estrategikoa, Programa Kontratuak, kudeaketa-kontratuak
Araudia eguneratzea eta betetzea	<i>Osasuneko Foru Lege berria</i> , araudia berrikustea, Landa Eremuko Arreta Plana

DIMENTSIOAK	PLANAK / PROIEKTUAK
Informazio-sistemak	Kontabilitate analitikoa, historia kliniko bateratua, errezeta elektronikoa espezializatua, baliabideen mapa, kudeaketako agintarien koadroa (Zentroak eta Zerbitzuak), agintari estrategikoen koadroa, itunak, osasun-karpeta, eramangarritasuna
Emaitzekiko orientazioa	Emaitzen berri emateko sistema, kudeaketari buruzko itunak, preskripzioa emateko eta erabaki klinikoak hartzeko laguntza-sistemak
Ikerketa	<i>IdiSNA Aliantza</i> , Ikerketa publikoaren sustapena NUPekin
Eredu asistentzial berriak	Kronikoen estrategia, Berrikuntza Estrategia, Zainketen eredia
Aliantzak	Barruko zein kanpoko aliantzak kudeatzea
Ezagutzaren kudeaketa	Ezagutza Kudeatzeko Estrategia
Prozesuen araberako kudeaketa	Prozesuen araberako kudeaketa erakunde guztietan
Gobernamendu klinikoa	Kudeaketa klinikoaren eredia, Programa Kontratuak, helburuen itunak zerbitzuekin, kudeaketako prestakuntza
Etengabeko hobekuntza	Hobekuntza-planak zentro eta zerbitzuetan, kontsulta espezializatuak hobetzeko plana, larrialdi-zerbitzuak hobetzeko plana, benchmarking, kudeaketa aurreratuaren kudeaketa-eredia/EFQM, zerbitzu zentralen ISO ziurtagiria
Lidergoa	Lidergoaren kudeaketa, laneko giroari buruzko galdetegiak, hobekuntza profesionalaren planak
Lanaren egokitasuna	Lan-kargari eta lanpostuak egokitzeari buruzko azterketak
Lan-baldintzak	Enpleguaren kalitatea hobetzeko plana, itun soziala, lan-osasuna
Antolaketa eraginkorra	Barneko komunikazio-plana, prozesuen araberako kudeaketa
Gaikuntza	Urte anitzeko prestakuntza-plana, profil profesionalen egokitzapena, gaitasunen araberako gaikuntza, ezagutza hedatu eta sendotzea, benchmarking
Aintzatespena	Aintzatespen-plana, ordainsari eta pizgarrien berrikuspena
Aliantzak ingurunearekin	Aliantzak profesionalen elkargoekin, unibertsitateekin, profesionalen elkarteekin, herritarren eta pazienteen elkarteekin
Kanpoko irakaskuntza	BAME irakaskuntza, erizaintzako eta osasun-lanbideetako graduatu aurrekoak eta ondokoak
Aberastasuna sortzea	Enplegua sortzea, aliantzak kanpoko enpresekin
Ezagutza zabaltzea	Jardunaldi eta kongresuetan parte hartzea, artikuluko zientifikoak eta kudeaketari buruzkoak
Erakundeekin eta GKEekin lankidetzan aritzea	Lankidetzaren sustatzeko plana (proiektuak identifikatzea eta lehenestea, laneko baimenak, lantaldeak)
Herritarren parte-hartzea	<i>Parte hartzeko eta komunikatzeko estrategia</i>
Kanpoko komunikazioa	Kanpoko komunikazio-plana, erakunde sozialentzako galdetegiak
Hondakinen kudeaketa	Hondakinen kudeaketa-plana eta birziklatzea
Energiaren kudeaketa	Energiaren kudeaketa-plana

2. Eranskina

Aurkibidea

ADIERAZLEAK/HELBURUAK

Dimentsio bakoitzaren jarraipena egiteko barne-laguntza gisa, ildoek eta proiektuek nola aurrera egiten duten ebaluatzea ahalbidetzen duten adierazleak eta helburuak gehitu dira.

HELBURUA	LERROA	DIMENTSIOA	ZUZENEKO ADIERAZLEAK	ZEHARKAKO ADIERAZLEAK	2016	2017	2018	2019
INPLIKATUTAKO PROFESIONALAK	Profesionalen gogobetetze-maila							
	Lidergoa	Liderazgo	Lidergoarekin pozik daudenen %	Ebaluatutako liderren %				
	Parte-hartzea eta lan-baldintza egokiak	Lanaren egokitasuna	Lanaren egokitasunarekin pozik daudenen %	Absentismoaren %				
			Lan-giroarekin pozik daudenen %	Laneko osasunaren ebaluazioa profesionalen %				
		Lan-baldintzak	Lan-baldintzekin pozik daudenen %	Lanpostu finkoen % Aldi baterako kontratuen batezbesteko iraupena Laneko arriskuen ebaluazio eta planaren %				
	Garapen profesionala eta aintzatespena	Antolaketa eraginkorra	Antolaketa eraginkorrarekin pozik daudenen %	Prozesuen ezarpenaren %				
				Kudeaketa klinikoaren unitate-kopurua				
				Informazioarekin pozik daudenen %				
				Parte-hartzearekin pozik daudenen %				
	Garapen profesionala eta aintzatespena	Gaikuntza	Prestakuntzarekin pozik daudenen %	Urtean prestatutako profesionalen % Prestakuntzarako ordu-kopurua > %50 (2015) Gastua prestakuntzan				
		Aintzatespena	Garapen profesionalarekin eta aintzatespenarekin pozik daudenen %	Ordainsariarekin pozik daudenen % Enpresaren irudiarekin pozik daudenen %				

PROGRAMA-AKORDIOA

Erantsitako koadroan programa-akordioaren eta aginte-taularen ildo estrategikoen arteko lotura ikus daiteke.

LERRO ESTRATEGIKOAK	DIMENTSIOK	PUNTUA	ERABAKI PROGRAMATIKOA
Osasunaren babesa	Osasunaren babesa	19	Osasun publikoa sustatzea
Prebentzioa eta detekzio goiztiarra	Prebentzioa eta detekzio goiztiarra	19	
Osasuna sustatzea	Osasuna sustatzea	19	
Osasuna politika guztietan eta ekitatea	Departamentu arteko estrategiak	23	Osasuna politika guztietan sustatzeko konpromisoa
Zerbitzuak modu eraginkor eta seguruan eskaintzea	Estrategia asistentzialak	6	Indarreko planen aplikazioa berrikustea eta hobetzea
		16	Osasun mentaleko sareak ematen duen maila asistentziala optimizatzea
		17	Laguntza aringarria ematea sistema publikoan, patologia guztietan
Herritarrek osasun-laguntzan dituzten eskubideak eta betebeharrak	Unibertsaltasuna	1	Unibertsaltasuna bermatzea
		29	Aztertzea Nafarroako Unibertsitate Klinikak bere langileekin duen hitzarmena
	Herritarren eskubideak	2	HBEa bermatzea
		20	2010 Legearen araudiak garatzea
		21	Emakumearentzako Arreta Zentroak Familia Orientazioko eta Sexu Hezkuntzako Zentro bilakatzea
22	Ugalkortasun-tratamenduak jasotzeko aukera bermatzea		
Gaikuntza eta autonomia bermatzea	Pazienteen parte-hartzea	3	Gizartearen parte-hartzearen aldeko apustua egitea
	Erosotasuna	14	Sukaldeak berreskuratzea

LERRO ESTRATEGIKOAK	DIMENTSIOAK	PUNTUA	ERABAKI PROGRAMATIKOA
Nahikotasun finantzarioa	Finantziazio nahikoa izatea	4	Aurrekontuen politikan nahikotasunaren, eraginkortasunaren eta gardentasunaren aldeko apustua egitea
	Erosketa eraginkorrak	15	Itun eta hitzarmen guztiak berrikustea
Baliabideen antolamendua	Baliabideak planifikatzea eta optimizatzea	11	Optimizatzeko eta errentagarritasuna ateratzeko neurriak ezartzea
Jardueren eraginkortasuna eta bizkortasuna	Prozesuen eraginkortasuna	10	Eraginkortasunaren aldeko apustua egitea farmaziako prestazioetan
		27	Nafarroako Ospitalegunean egonaldi laburreko unitate bat sortzeko aukera aztertzea
	Profesionalen eraginkortasuna	8	Osasunbideko plantillaren neurria ezartzea
Aldaketa planifikatzea	Plan estrategikoak eta hobetzeko planak	5	Apustu argia egitea lehen mailako laguntza lehenesteko
		12	Lehen mailako laguntzaren, laguntza jarraituaren eta urgentearen erreformari ekitea
		13	Osasun-garraioa arautu eta berrantolatzeari ekitea
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	Ikerketa	25	IDISNAren zuzendaritza, kudeaketa eta kontrol publikoaren aldeko apustua egitea
	Ezagutzaren kudeaketa	9	Osasuneko kudeatzaileen profesionalizazioaren aldeko apustua egitea
Lidergoa	Lidergoa	8	LEP bat egitea
	Lan-baldintzak	26	Kontingentzia publikoak publiko egitearen ondorioen azterketa bat egitea
Garapen profesionala eta aintzatespena	Gaikuntza	24	Irakaskuntzarako aurrekontu-zuzkidura ezartzea





Aurkibidea

N A F A R R A

“OSASUNBIDEA: OSASUNAREN ALDE BIDEA EGINEZ” ESTRATEGIA

HELBURUAK ETA
JARDUERAK
(2015-2020)



Servicio Navarro de Salud
Osasunbidea